

# GUaiXE.eus



**Nafarroako Herri Kirol Jolasak Etxarrinigandean**



**Kirolak >> 13**

**Irurtzungo antzerki tailerreko 10 aktoreek El club de las lanas antzezlanaren emanen dute herriko kultur etxean asteburuan**



**Kultura >> 15**



Sakanako mugimendu feministako kideak Altsasun asteartean, 19:00etan, izanen den manifestaziora deitzen. ERKUDEN RUIZ, BARROSO

## Bide morea

>>> 8-9

### Aralarreko animalien osasunerako estrategia bateratua

Gipuzkoako Diputazioko eta Nafarroako Gobernuako landa garapenerako arduradunen bileran hartu zen erabakia. Mendiko Gazta proiektuan artzain nafarrak sartuko dira ere

>>> 3

### Irurtzungo Udalak 1,88 milioi euroko aurrekontua onartu du

Kontratazioak egiteko 190.000 € bideratuko ditu

>>> 7



**Ezkurdia-Barriola, hitzordu handia aurrean**

>>> 11



**Jolasten egiten den terapiarako laguntza eskatu dute**

>>> 5



**Etxarriko bardoak finalerditako saioetan**

>>> 14

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA / ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR

PREST

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

INGENIARITZA GRADUETAKO ATE IREKIAK

**GOIERRIKO CAMPUSA**

**MARTXOAK 12**

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

**MAIATZAK 19**

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest



# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com

Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



## marsuak

# 4-10

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

### Enara eta Nahia Berasategi Lakuntza

ZORIONAK zuen 4. urtebetetzean!! Aitaren eta amaren partez.

### Iraia Ongay

ZORIONAK printzesa!!! Ongi pasa eguna!!! Jaso muxu potolo bat, Oier eta amatxoren partez!



### Oihan

ZORIONAK Oihan ta besarkada estu eta iraultzaile bat! Luis, Boltio, hi ta gainontzeko GUZIEK kalien yon artio JO TA KE IRA-BAZI ARTE! Hi launek.



### Nahia Miguel Goikoetxea

Hamaika mila ZORIONAK eta muxuak, sirenatxoak! Zure familiaren partetik.



### Izei

ZORIONAK borrokalaria!! Urte bat, eta gero eta gehiago maite zaitugu. Zure aita, ama, anai-arrebak eta aiton-amonen partez. Egun polita izan.



### Maite

ZORIONAK eta eskerrik asko beti hain irrifartsu eta eskuabala izateagatik.

### Musika

#### Fran eta Zuriñe (Hesian)

Martxoaren 4an, ostiralean, 22:30ean Olaztiko Barandi tabernan. Emanaldi akustikoa.

#### Kaxianoren alabak

Martxoaren 4an, ostiralean, 23:00etan Arbizuko Argibidea elkartearen.

### Antzerkia

#### El club de las lanas

Martxoaren 4an, ostiralean, 20:00etan eta 22:30ean; martxoaren 5ean, larunbatean, 20:00etan eta martxoaren 6an; eta igandean, 19:00etan Irurtzango kultur etxean. **Irurtzango antzerki tailerra.**

#### Juegos prohibidos

Martxoaren 4an, ostiralean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Tela Marinera.**

#### Nosotras

Martxoaren 5ean, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **El Bucle producciones.**

#### Dando el cante

Martxoaren 5ean, larunbatean, 20:00etan Olaztiko kultur etxean. **Inma la Bruja eta Pedro Barragan.**

#### New Orleansko Cyrano

Martxoaren 6an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Tela Marinera.**

### Bakarrizketa

#### Irakatching gazte

Martxoaren 4an, ostiralean, 22:30ean Altsasuko gaztetxean. **Macrea Clarke.**

### Ipuin kontalaria

#### Ipuin ez sexistak

Martxoaren 8an, 18:00etan Arbizuko liburutegian.

### Zinema

#### Mi casa en Paris

Martxoaren 4an, ostiralean, 21:45ean eta martxoaren 6an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

#### Embarazados

Martxoaren 6an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

#### Magiaren etxea

Martxoaren 6an, domekan, 17:00etan Olatzagutiako kultur etxean.

#### Sufragistas

Martxoaren 10ean, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

### Bizikleta irteerak

#### Altsasu-Gordoa-Altsasu

Martxoaren 5ean, larunbatean, 10:00etan Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. **Zikloturista taldea.** 69 km.

#### Lubierri-abelbidea

Martxoaren 6an, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik edo 9:20an Bioitza kanpinetik.

**Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.** 57 km.

### Erakusketak

#### Zero grabitatea

Martxoaren 17ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

### Bertsolaritza

#### Einnekin & Larungo antenak

Martxoaren 4an, ostiralean, 22:00etan Etxarri Aranazko gaztetxean. **Bardoak.**

### Literatura

#### Babes bila (Lourdes Oinaederra)

Martxoaren 10ean, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **Irakurle taldea.**

### Tailerrak

#### Pintura

Martxoaren 4an eta 5ean, ostiralean eta larunbatean, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

#### Respuestas combativas ante la violencia machista

Martxoaren 10ean, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Las farrucas. Altsasuko mugimendu feminista.**

### Hitzaldiak

#### Brasilgo lurrik gabeko mugimendua+Askapenaren brigaden aurkezpena

Martxoaren 4an, ostiralean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Askapena.**

#### Udalgintza eta erakuntza nazionala Herralde Katalanetan

Martxoaren 4an, ostiralean, 19:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Laia Santis eta Edgar Fernandez, CUPEko zinegotziak.**

#### 3 m sobre el cielo, oinak lurtean hobe!!

Martxoaren 6an, domekan, 18:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **Hizlariak: Emagin.**

#### Mugimenduaren garapena

Martxoaren 7an, astelehenean, 17:00etan Arbizuko Kattuka haur eskolan.

#### Txertoak

Martxoaren 7an, astelehenean, 19:00etan, Irurtzunen. **Hizlaria: Mikel Garcia Garcia, mediku eta psikologoa.** Izen ematea eta informazioa:

620 254 230 edo amalur@amalurelkarrea.org. **Amalur.**

#### Feminismoa eta internazionalismoa

Martxoaren 7an, astelehenean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Mugimendu feminista eta Askapena.**

#### Ultra-trailak

Martxoaren 9an, asteazkenean 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Uxue Fraile Azpeitia.**

#### Piazoala bide berdea.

Martxoaren 10ean, ostegunean, 20:00etan Irurtzango udaletxean. **Iraxto elkarte.**

#### Camino hacia la luz.

**Otra mirada sobre las mujeres del Karakorum pakistani**

Martxoaren 9an, asteazkenean, 19:30ean Olatzagutiako Kultur etxean. **Hizlaria: Txaro Otxandorena.**

### Bestelakoak

#### Gau jolasak

Martxoaren 5ean, larunbatean, 21:15ean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Deialdiak

#### Abian prozesua

Martxoaren 4an, ostiralean, 18:00etan Urdiango herriaren etxeko auzoan. **Sortu.**

#### Euskal Presoak Euskal Herrira!

Martxoaren 4an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

#### Euskal Presoak Euskal Herrira!

Martxoaren 6an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

#### Sakana feminista. Sakana askea!

Martxoaren 8an, asteartean, 19:00etan Altsasuko Foru plazan. **Sakanako mugimendu feminista.**

Ostiralero  
**SAIOA**  
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara



Gaurko gaiak:  
• Martxoak 8 • Sakanako  
industrialdeen inbentarioa  
• Zabaletaren itzulera

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE



**LANGABEZIA BERTIN:** Altsasuko enplegu bulegoan otsaila akaberan hasieran baino 3 langabetu gutxiago zeuden izena emanda (%0,27 gutxiago). Guztira 1.118 skandar. Bulego horren bidez 448 kontratu egin ziren.

# ezkaatza >>

## SAKANA

# Jatorri ezberdineko 15 gazte Ennecon ariko dira lanean udan

DeAmicitia gobernuz kanpoko erakundeko boluntarioak Etxarri Arantzen egon dira proiektua bertatik ezagutzeko

Erkuden Ruiz Barroso

Enneco Haritzaren memoria parkea auzolanean egiten ari dira. Administrazioaren baimenaren zain daude lanekin hasteko. Udan Madrilgo DeAmicitia Gobernuz Kanpoko Erakundeko (GKE) nazioarteko hamabost boluntario gazte ariko dira Etxarri Arantzen lanean. Enneco "oso proiektu interesgarria" dela esan du Ignacio Gonzalez DeAmicitia kudeatzaileak.

DeAmicitia GKE jatorri ezberdineko boluntario sare bat da. Alliance nazioarteko elkartearen barruan dago. Elkarrekin 20.000 bat boluntario aritzen dira munduko 2.000 proiektutan banatuta. Haietako bat Etxarri Arantzen Enneco, haritzaren memoria parkea izan da aurtun. Astelehenean Ignacio Gonzalez DeAmicitia kudeatzailea eta Mojca Pusnik eta Asli Akin erakundeko boluntarioak Etxarri proiektua ezagutzen egon ziren. Garilaren 4tik 11ra arte hamabost gazte boluntario etorriko direla adostu zuten.



Atzerriko boluntarioak izan dira eta Gonzalezek azaldu duenez, herrialde ezberdinetako jendea egoten saiatzen dira. "Beste perspektiba batekin datozen gazteak bilatzen ditugu, izan ere, haien herrira itzultzen direnean hementxo kontatuko dute. Beste errealitate batzuk daudela helaraziko dute". Onuradunak lanean aritzen diren gazteak dira. Parte hartzen duten proiektuek herrietan

onura izan behar dute.

### Lanak

Ennecon egin beharreko lanak "asko" dira, Vicente Azpilikueta koordinatzaileak aitortu duenez. Proiektua martxan jartzeko baimenak behar dituzte eta behin haiek iristen direnean parkea eraikitzen hasiko dira. Dagoeneko kastro baskoiaren zimenduak daude, baita eraikin bakoitza

egongo den lekua mugatuta ere. Lekua garbitu behar izan du orain arte auzolanean aritu den jendeak. Baina asko dago egiteko. Udan helduko diren boluntarioek "denetarik" egin beharko dute.

Auzolana da proiektu horren oinarria. Ignacio Gonzalezek azaldu du auzolana "herri txikietako" bereizgarri bat dela eta Norvegian ere auzolan kasuak badirela.

### Bigarrenez Sakanan

DeAmicitia hamabost boluntariojandenduan Bernoakogaltzadaberreskuratzen egon ziren. Aurtun ere hamabost gazte galtzadan lanean ariko direla azaldu du Gonzalezek. Sakana Aitziber Miguelaltsasuarrariesker ezagutu zuten. Miguel erakundeko boluntarioa da eta Sakanara etortzeko proposatu zien. Sakana Garapen Agentziarekin batera lan egin zuten joan den urtean eta erraztasun guztiak jarri zizkietela gaineratu du Gonzalezek.

Auzolanean ariko dira helduko diren boluntarioak, baita Enneco eraikitzen lagundu nahi duen edozein ere. "Edonor etor daiteke laguntzera", adierazi du Amaia Zabala Enneco proiektuaren komunikazio arduradunak. Lanak hasten direnean, Sakana ikastetxeetako umeek parkea bisitatu eta eraikitzen laguntzea nahi dute. "Kastroaren horma nagusiak guk egingo ditugu, baina umeek haien izena harrietan jartzea nahi dugu eta barruan utzi". Ennecoren beste bereizgarri bat Erdi Aroko dorrea izan da eta haren eraikuntzarako XVIII. mendeko garabio bat jarriko dute. Hala ere, lehenik harre-araikina egin nahi dute: "horrela eraikitzen dugun bitartean jendea etorri ahalko da".

## Aralarko mendilerrorako abeltzaintzako osasun-estrategia

Nafarroak eta Gipuzkoak estrategia bateratu bat definituko dute Aralarko mendilerroko animalien osasunerako

Gipuzkoa Diputazioko eta Nafarroako Gobernuak landa garapenerako ordezkari Ainhoa Aizpuru eta Isabel Elizalde aurreko ostiralean bildu ziren. Bi lurraldeetako lehen sektoreko eta landa-eremuko baldintzak hobetzea

bilatzen duten proiektu bateratuak aztertu zituzten bileran.

Biak bat etorri ziren "Gipuzkoa eta Nafarroako landa-eremu askoren izaera eta arazoa bertsua dela" esatean. "Partekatzen edo bi lurraldeen artean muga diren erabilera publikoko mendiak bereziki; beraz, bien arteko lankidetzaz ezinbestekoa da". Horien artean dau-

de Sakanaren muga diren Aralarko eta Aizkorri mendilerroak.

Horregatik, bileran erabilera publikoko mendietako abeltzaintzako jardueren kudeaketa aztertu zuten. Agerian geratu zen alor horretan animalien osasuna dela garrantzizkoena; izan ere, ez du askorako balio ustiapen batekin neurri zorrotzak hartzea uda-

garian beste animalia batzuekin elkartzeko eta elkar kutsatzeko arriskua badago. Bi administrazioek lantalde bat osatzeko erabakia hartu zuten, Aralarko mendilerrorako osasun-estrategia bat abian jartzeko asmoz.

### Mendiko Gazta proiektua

Idiazabal jatorri-deituran sartutako artzainendako ekimen bat da, eta gazta mendiko txaboletan egiten dute. Proiektua duela zortzi bat urte hasi zen. Egun, Mendiko Gazta egiten duten artzai-

nak Aralarren eta Aizkorriin daude, baina abeltzain nafarrek ere gaiarekiko interesa agertu dute. Bi administrazioek orain arte egindako kudeaketei buruzko informazioa partekatu zuten eta ekimen berri bateratuak sustatzea erabaki.

Gainera, araudi nahiz funtzionamendu komunak dituzten lehen sektoreko jarduerak jorratu ziren, esaterako: Idiazabal Jatorri Deitura edo Lekunberriko Institutu Laknologikoa. Baita Pirinioetako arrazako behi-aziendaren gaia ere.

Asteburu gauetarako  
**Menu berriak**  
Ostiral eta larunbata gauetan

**San Kiriko**  
MENUA  
29€

**San Adrian**  
MENUA  
35€

**Borda** Egin zure erreserba! [www.bordajatetxea.com](http://www.bordajatetxea.com)  
948 46 05 45

**BIKAIN**  
GARAJEA, S.A.L.  
948 460 037 Arbizu  
948 468 441 Altsasu

**Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA**

**Mekanika  
Elektrizitatea  
Txapa  
Margotzea**

**IORTIA**

Hitzaldia:  
Haurren aho-hortzetako osasunari buruzko gurasoentzako gida laburra.

CLÍNICA DENTAL · HORTZ KLINIKA

Eguna: 2016ko martxoaren 4a  
Hora: 17:30etan  
Tokia: Lekunberriko Udaletxe Batzar aretoa  
Hizkuntza: Hitzaldia euskaraz, diapositibak gaztelaniaz  
Sarrera irekia  
Hizlaria:  
Ane Vitoria - Odontopediatra





## Ez gaitezen itsutu: Drogek ez dute “kulparik”, norberaren ardura da!!!

Marian Mendiola Barandalla

astekoa

Azken garaian maiz entzuten ari garen eta gertutik ezagutzen dugun hiruhortzekoa (gaur aisialdia, droga kontsumoa eta sexu indarkeria) arrastinatzen eta ulertu nahiangabiltza, lagun bizkaitar bat eta biok. Galdera zaharberri asko daude argitzeko eta hausnartzeko. Batetik, parranda giroan ematen diren indarkerietan drogek duten eraginaren inguruan. Eta, bestetik, neska gazteek drogak kontsumitzeko eta gau-giroa ber-

dintasun ikuspuntutik antzemateko duten moduaren inguruan.

Lehenengo galdera horri erantzunez “sumisio kimikoaren” eztabaida mediatikoa legoke. Hedabideetan entzuten dugun kontzeptu horren atzetik, kontuak kontu, bi indarkeria ezberdin leudeke: alde aurretik prestatutakoa (erasotzaileak, asmo txarrez, biktimari substantzia desinhibitzaile bat ematen dionean) eta oportunistak (bere boron-

datez kontsumitu, gehiegitxo segur aski, eta bere onetik kanpo dagoenari sexu-erasoa egitea). Lehenengo kasua sexu erasotzat jotzen da, baina, bigarrenean erraza da ardura eraso jasoduenaren bizkar gainera botatzea, gertatutakoaren arduraduna bailitzan.

Azken horiek dira gurean sarritan gertatzen diren sumisio kimikoak, aprobeztategiak, gehienetan edari alkoholikoekin busti eginda. Horrelako egoerak

ematen direnean, aurretik kontsumitutako droga(k) erasoaren ardura duela esateko joera dugu, sexu indarkeriaren detonagailua bailitzan. Era honetako diskurtsoekin droga-kontsumoa kriminalizatzearekin batera, erasotzaileek duten ardurari muzin egiten zaio.

Zergatik ez diogu erreparatzen kontsumitzaile-erasotzaileak duen ideologiari eta hark ikasitakoari? Ez al dakigu horrek eragina izan baduela? Adarrek ez

digute basoa ikusten uzten. Sexu-indarkeriaren zainak errotuak daude matxismoan, gizon-emakumeen kultura sexualean eta onartuak ditugun estereotipoetan (gizonen inpultsu sexual eutsiezina, neskek ezetza emateko duten modua eta ezetak ulertzeko era). Horregatik, kontutan izan behar gogokatu drogen kontsumoak ez dituela mutil-gizonak sexu-erasotzaile egiten, ezta neska-emakumeak biktima edota errudun bihurtzen ere.

## barrutik kanpora

# Zahartzaro duina

Urte hasieran, gehienetan urtarilean, Madrildik datozen bi eskutitz jasotzen ditugu jubilatuek, gure jubilazioak izango duten igoera jakinarazten diguna, bata, eta errenta aitortpena egiteko aurkeztu behar dugun agiria, bestea. Hizkuntza atsegin erabiltzen dute eta zalantzarik gelditzen bada nahi dugun informazio guztia emateko prest agertzen dira. Bejondaiela, informazioaren beharrik ez dugusentitzen, kezka bai. Murrizketa gehiagoren zurrumurruak zabal-

tzen hasiak dira: dirurik ez dago, jubilatutako dago, bizi itxaropena luzatzen ari da...

Egunkarietan, telebistan, tertulietan... ikusi eta irakurtzen ari gara jubilatutako eta pentsionistek gutxiago ordaintzeko kaleratzen dituzten argumentuak eta, zoritxarrez, bada etsita gelditzen denik. Are gehiago, zalantzarik gabeko adostasuna agertzen duenik. Jarrera hau ulertezina da guretzat. Gauza bat da, ekonomia arloan jakite murriztekoak izanik, beste irtenbide bat bilatze-

ko edo proposatzeko gai ez izatea. Eta beste bat, gure etorkizuna mugarik gabeko diru-gose kapitalismoaren eta politiko ustelduen erabakietan lagatzea, uztea.

Horregatik, Euskal Erkideko eta Nafarroako Pentsionisten Plataformak ez gaude ados, onartu ezina da gure egoera. Nafarroan badira 36.000 pertsona, emakumeak gehienak, beraien pentsioak 600 euro-tara iristen ez direnak. Egoera hau aldatzeko asmoarekin Euskal Erkideko eta Nafarroako Pentsionisten Plataformak ILP bat aur-

keztu du bi Parlamentuetan, aldarrikapen hauekin: a/ Kopagoa kendu; b/ 1.080 euroko pentsio minimoa kobratzeko osagarria hitzartu; c/ pentsio eta Gizarte Zerbitzuen ahalmena eskuratu. Eusko Lege Biltzarrean atzera bota dute eskaera, Nafarroan aurrerabidea eman zaio eta Parlamentuan eztabaidatuko dute.

Aldarrikapen hauek baieztatu eta gizarteratzeko sinadura kanpaina zabal bat antolatzen ari dira, bitartean, martxotik maiatzera. Jende guztien parte-hartzea

eskatzen da, gaur edo bihar denoi iritsiko zaigu jubilatutako izateko adina. Bizitzaren azken aldi opa-roa arriskuan dago. Adi egon, botere politiko eta ekonomikoak gure pentsioak murrizteko erabiltzen dituzten arrazoiak ez onartu. Ezin dugu ontzat eman jubilatutako eta pentsionistak pobrezian bizitzera behartzen gaituen gizar-te eta etorkizuna. ZAHARTZARO DUINA IZATEKO ESKUBIDEA DUGU.

SASOIA

## hara zer dien

# 1911-1977-2016

Eta zenbaki hauek? 1911. urtean Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatu zen lehen aldiz. Euskal Herrian, aldiz, 1977. urtean. Aurten, 2016ko martxoaren 8a ere Sakanan, Euskal Herrian eta mundu osoan ospatuko dugu.

Ehun urte pasa dira nazioarte mailan lehenengo martxoaren 8a antolatu zenetik eta berrogei urte Euskal Herrian lehen aldiz ospatu zenetik. Urte askotxo, ezta? Askotan entzuten dugu aldaketa sozialak, estrukturalak deitutakoak, oso motellortzen direla, era horretako dinamika sozialak

aldatzeko denbora luzea behar delako. Antza, gure leloa dordoken modukoa da, ‘poliki-poliki’!

Baina labur dezagun urte horietan guztietan gertatu dena. Gizonen zituzten eskubideak guretzat lortu ditugu, legalki behintzat. Maila guztietako ikasketetan eta lanbide gehienetan sartu gara; ez dugu gure sexualitatea ezkutatze beharrik eta amatasunari mugak kendu dizkiogu; gure diskriminazioen zergatiak nondik datozen badakigu, baita nola errepikatzen eta erreproduzitzen diren ere!; historian emakume-

ek egindako ekarpenak ezagutzen ditugu, bai norbanakoenak baita kolektiboenak ere; lehen ‘Nazioarteko Emakume Langilearen Eguna’ izatetik ‘Emakumeen Eguna’ ospatzera pasa gara, emakume asko eta desberdinak garelako, eta guztiok lan egiten dugulako.

Sinestezina da, jadanik eginda-ko ibilbidea eginda ere, oraindik orain gure eskoletan, gure inguru hurbilean eta gizartearen ezezaguna dela emakumeek egindako lana, lorpenak eta historia. Enpresetan maiz ematen dira

lan-jazarpena, sexu-jazarpena, soldata eta ordutegi arloetan desabantailak, lanpostua hobetzeko edota ama izateko zailtasunak. Emakumeen kontrako indarkeria gero eta bortitzagoa da, gure neska-mutil gazteen harremanak maitasun erromantikoaz ziprztindurik dauden bitartean. Argi dago hau ez dela kasualitate hutsez gertatzen, ezta gaizki egindako lanagatik ere, ibilbide hau oztopatzen duten dinamika, egoera, erabaki sozial eta politiko handiak daudelako baizik.

Emakume guztiek –ez litzateke

hobe “andrea” hitza erabiltzea, ema-kumea baino?... Andre guztiok gizartearen dagokigun lekua bete behar dugu, dagokigun eskubideak hartuz eta mantenduz. Sekula baino gaurkotasun handiagoa du Euskal herriko lehen martxoaren 8ko hartan idatzi zen adierazpenak: Emakumea, egin hitz, egin garrasi gurekin, nahi duzuna eta gustatzen ez zaizuna adierazteko!

Emakumeen Bilgunea

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus  
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus  
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea  
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus  
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus  
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso, Saioa Lizarraga Iturralde

ZUZENTZAILEA: Patxi Flores

ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank  
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Salburuzordeta

LAN POLTSA

**ADMINISTRARIA ORDEZKATZEKO LAN  
POLTSA:** Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte  
Zerbitzuen Mankomunitateak administra-

ria ordezkatzeko lan poltosa osatzea erabaki  
du. Interesatuek hilaren 11ra arte aurkeztu  
dezakete dokumentazioa, egoitan.

# sakanerria >>

SAKANA

## Jolasten egiten den terapia

Erkuden Ruiz Barroso

*Lau zango, milaka irri* garapenean zailtasunak dituzten haur eta familiei zuzendutako animaliek lagundutako terapia programa bat da. Bocalan Biak Bat-ek martxan jarri duen terapia berria eta berriztatzailea da eta Altsasuko egoitzan aurrera eramaten du. Hiru hilabetez zortzi haurrek eta zazpi familiak parte hartu dute programa honetan eta hobariak nabarmenak izan dira, Amaia Oraa programan parte hartu duen ume baten amak dioen bezala. Laguntza behar dute programarekin aurrera jarraitu ahal izateko. Umeak ez dute terapia bat bezala ikusten "txakurrarekin jolastera" joaten direlako, eta horrek motibazioan laguntzen du, Josune Azpiroz Bocalan Biak Bat-eko psikologoak azaldu duen bezala.

Animaliek ez dituzte aurreiritzirik, ez dute diagnostiko batekin lan egiten eta ez dituzte haurren arazoak ikusten. Animaliek ez dute hori buruan eta umeak agurtzera gerturatzen dira eta interakzioa bilatzen dute. Oso garrantzitsua da animaliek ematen duten konfidantza hori terapian, Josune Azpirozek azaldu duen moduan. Animaliak profesionalak iritsi ezin diren konfidantza harreman batera iristen dira, eta profesionalen lana egiten laguntzen die. Baina nahi gabe egiten da. "Umeak helduekin egotera ohituta daude eta egiteko hainbat gauza eskatzen zaie. Baina hemen ez dira konfaturatzen terapia egiten ari direla.



Amaia Oraa eta Josune Azpirozek umeekin egiten diren txakur terapiak goraipatu zituzten. ERKUDEN RUIZ BARROSO

Txakurrarekin edo animaliekin jolastera etortzen dira. Zirkuitu bat egin behar dute eta agian beldurra diote, baina txakurrak egiten duela ikustean haiek ere egiten dute. Edo aldrebes, txakurrari erakusten diote zirkuitua nola egiten den". Animaliekin motibazioa lantzen dute gehien bat. Haurrak txakurraren bidez jasotzen dituzte eskerak, eta txakurrarekin jolasten duenez, modu naturalean egiten dituzte gauzak.

### Garapenean eragina

"Nire semeak ordu asko pasatzen ditu helduekin: eskolan laguntza dauka, beste terapia batzuk... Hona etortzen denean Niponekin jolastera etortzen da. Baina gauzak ere lantzen ditu". Amaia Oraa olaztiararren semea *Lau zango, milaka*

*irri* programan hiruhilabetez egon da. Programa horretan zazpi familiak eta zortzi ume egon dira, eta Oraa Sakanako familia bakarra izan da. Animaliek haren semearen garapenean izan duten eragina "nabarmena" dela dio. "Lengoian atzerapena dauka eta ahoskeran asko hobetu duela nabaritu dugu, orekan ere hobetu du...". Bere semea "oso pozik" joaten dela dio; Bocalan Biak Bat egoitzatik pasatzerakoan Nipon txakurrarekin jolastera joan nahi duela dio.

Animaliekin terapia egiten dutenean ahalegin bera egiten dutela dio Azpirozek, baina "ez da antzematen". Terapia osagarria da kasu gehienetan, baina ez du horrela izan beharrik. "Tratatzen dituzten beste profesionalekin eta gurasoekin hitz egiten dugu jaki-

teko zer egiten duten, zer behar duten, etabar. Ez da terapia alternatibo bat, osagarria baizik". Animaliekin egindako terapiekin motibazioa lantzen dutenez, motibazio horrek aurrera egitera eramango die eta horrek aurrera pausua azkarrago ematen laguntzen du. Bi adin tarterekin lan egiten dute: 0-6 urte bitartekoak garapenean txikiak direnetik laguntzen zaie, eta 6-12 urte bitartekoak garapenean laguntzeko.

### Laguntza

*Lau zango, milaka irri* programa berria eta berriztatzailea da eta aurrera eramateko laguntza behar dute. Nafarroako Kutxa fundazioak emandako diru-laguntza jaso dute, baina ez da nahikoa. Joan den urtean Barañaingo kul-

### Harremanetarako

Lau zango, milaka irri programa-  
rekin parte hartu nahi duten edo  
nolabait lagundu nahi dutenek  
mezu bat bidali dezakete boca-  
labiakbat@gmail.com helbidera.

tur etxean jaialdia egin zuten eta jasota diruarekin eta hainbat ekarpenekin batera lau familiak beka jaso zituzten. Aurten ere ahalik eta familia gehien lagundu nahi dituzte. Hortaz, elkartasun afari bat egin nahi dute. "Baina familiek haien gauzak dituzte egiteko, guk gureak... afaria antolatzen laguntzen digun jendea behar dugu. Edo, adibidez, pentsatu dugu Olatzagutiako Udalarekin batera kultur ekitaldi bat antolatzea eta dirua honetara bideratzea...". Bocalan Biak Bat-eko helburua da jendeak zerbaitekin disfrutatzea eta, aldi berean, laguntzea. Sakanako Mankomunitatearen eta udalen laguntza ezinbestekoa ikusten dute ere.

Programarekin jarraitzeko gauza guztiak prest daude. Familia gehiagok ere programan izena eman dezakete. Garapenean zailtasunak dituzten umei eta familiei zuzenduta dago. "Zenbat eta familia gehiago orduan eta garrantzia handiagoa hartuko dugizartean eta horrela errazagoa da jendeak laguntza ematea". Familian parte hartzea ere oso garrantzitsua ikusten dute, Azpirozek esanetan. "Guk azaldu dezakegu programa nola joaten den eta zer behar ditugun, baina familiak hobeto azaldu dezakete zer behar dituzten eta bere bizitza nola hobetu daitekeen".

&gt;&gt; Irurtzun

## Plazaola bide berdea hizpide

Ostegunean, 20:00etan, Irurtzunge  
udaletxean mahaingurua

Iratxo elkarteak antolatu du Plazaola bide berdeari buruzko mahaingurua. Andoain eta Irurtzun arteko ibilbidea egina dago

eta Irurtzun eta Iruña arteko zatia falta da. Azken zati horren proiektua zein egoeratan dagoen eta bestelakoez bost hizlari ariko dira mahaiaren bueltan: Gustavo Ortiz de Barron (Plazaolako turismo

partzuergoko gerentea), Eduardo Murugarren (Irurtzunge alkateordea), Floria Pistono (Iza-Gulinako alkatea), Juan Mari Albizu (Berriobetiko alkatea) eta Patxi Saez (Nafarroako Gobernu

Sakanarako turismo arduraduna).

Plazaola bide berdea hizpide izateaz aparte, Iratxo elkarteak hura bertatik bertara ezagutzeko aukera eskainiko du ere. Bere mendi taldeak martxoaren 13an, igandean, Irurtzun eta Plazaola arteko bide berdean barnako ibi-

laldia antolatu du. 8:30ean abiatuko dira Irurtzundik. Helmugara iristeko Larunbe, Añezkar, Elkar-te, Berriobeiti eta Berriozarko dermiontan barna ibiliko dira.

Ibilbidean parte hartu nahi dutenek elkartearen bertan, Pikuxar euskal txokoan edo egunean bertan eman dezakete izena.

Aldatzea jarrera bat da.  
Irabaztea gogobetetzea.



Hyundai Tucson Berria.  
Espainian 2016ko kotxerik onena.

Aldaketaren apustua egin eta irabazi dugu. Sari handi bat lortu dugu: Espainian 2016ko kotxerik onena izatea. Kotxe handi bati saria baina batez ere jarrera bati. Mila esker Hyundai Tucson kotxean apostu ezberdin bat ikusi duzuenoi.

Aldaketaren poterea nabaritu [www.hyundai.es-en](http://www.hyundai.es-en)

 NEW THINKING.  
HYUNDAI NEW POSSIBILITIES.

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A.  
ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • [www.autsanmiguel.com](http://www.autsanmiguel.com)



Gama Hyundai Tucson: Isuriak CO<sub>2</sub>(gr/km):  
119-175. Kontsumo mixtoa (l/100km): 4,6-7,5.

## &gt;&gt; Altsasu

## EH Bilduk jasotako proposamenak zehazteko gonbitea egin du

Udal hauteskunde aurretik EH Bilduk Altsasu 2020 Topaketa irekiak antolatuz zituen. Arantza Bengoetxea zinegotziak azaldu duenez, "topaketa haietan ideia mordoa jaso genituen eta orain ideia horiek definitzen eta gauzatzen hasteko garaia da". Horregatik, koalizioak Altsasu 2020 Zehazten Topaketa Irekiak martxan jarri du.

EH Bilduren ekimenak bi epe ditu. Lehena gaur hasi eta martxoaren 18ra arte iraunen du. Joan den urteko topaketa irekietan altsasuarrek hainbat proposamen egin zituzten. "Zuek datozen hilabeteetan aurrera eraman nahiko zenituzketen proiektuen alde bozkatzeko edo proposamenak egiteko" gonbitea egin dute EH Bildutik. Eskaintzen diren aukeren alde botoa emateko hiru modu izanen dira: Internet bidez, <http://altsasu.ehbildu.eus/zehazten> helbidean; sarearekin moldatzen ez direnei laguntzeko koalizioko kideak lortia kultur gunearen sarreran martxoaren 8an, 9an eta 10ean izanen dira eta, azkenik, kultur gunean eta udaletxean jarritako kutxetan eman daiteke botoa.

Botoak zenbatu ondoren, babes gehien jasotako hiru proposamenen gainean ariko dira Altsasu 2020 Zehazten Topaketa Irekietan, apirilaren 8-9an. "Metodologia ireki eta berritzaileen bitartez, zuek



EH Bilduko Paz, Bengoetxea eta Ramirez de Alda ekimena aurkezten. UTZITAKOIA

aukeratutako hainbat proiektu definitzea da helburua, datozen hilabeteetan aurrera eramateko". Topaketa Irekietan landuko diren gaiak altsasuarrek zehaztea nahi dute.

EH Bildutik altsasuar guztiei parte hartzeko deia luzatu diete, koalizioko bozkatzailak ez badira ere. "Soilik planteatzen den proiektu batekiko interesa eta lan egiteko gogoia izatearekin nahikoa da. Argi daukagu, bozken gainetik, batzen gaituzten gai asko ditugula altsasuarrok eta ziur gaude denon artean lan eginez, proiektu hobe eta txukunagoak aurrera eramateko gai izanen garela. Denon dena, komuna dena, denon artean kudeatuz".

### Proiektuak

- Alokairu soziala.** Altsasuko alokairu garestiei aurre egiteko ideiak aztertzea.
- Herriaren irudia.** Zer daherrigarria? Zer egin irudia aldatzeko?
- Helduentzako janari zerbitzua.** Etxerako zerbitzu hori eskaintzeko aukerak aztertu.
- Hondakinak.** Birziklapena hantzeako ideiak.
- Pergola.** Estalpe finko bat behan ekitaldiak egiteko. Tamaina, kokapena...
- Partehartzea.** Nola egin udala pixkanaka parte-hartzaileago bihurtzeko?
- Zuk proposatutakoa.**

## &gt;&gt; Izurdiaga / Arakil



### Argi mozketak ekarri dituen arazoak

Nafarroako Autopistatik gertu zegoenez, hainbat orduz itxita egon zen

Larunbat arratsaldean Arakilen hiruzpalau orduko argi mozketak izan ziren. Izurdiagan, Nafarroako Autopista ondoan dagoen goi tsioko argindar dorre baten goiko partean matxura izan zen. Dorrearen goiko punta okertu egin zen eta horrek eragin zituen mozketak. Dorreari garabia baten laguntzaz eutsi diote. Iberdrolako langileak dorrea finkatzeko lanean ari dira. Horrek ere, minutu gutxitako mozketak sortu ditu.

Autopista ondoan egotean eta hara erortzeko aukera zegoenez, igande goizaldetik 15:00ak arte autopistako Iruñerako norabidea itxita egon zen. Igandez geroztik errail bat dago zabalik eta horrek trafiko erretentzioak sortu ditu.

## &gt;&gt; Lakuntza / Arbizu

### Kattuka hasteko

Lakuntzako eta Arbizuko haur eskolan izen ematea hilaren 16ra arte dago zabalik

0 eta 3 urte arteko haurrendako Kattuka haur eskola Lakuntzako eta Arbizuko udalen ekimena da eta azken herri horretan kokatuta dago. Handik pasata eman daiteke heldu den ikasturterako izena. Bestela, [www.kattuka.com](http://www.kattuka.com) helbidean dago hari buruzko informazioa eta aurrematrikula egiteko aukera ere.

Haurrendako propio diseinatutako azpiegitura osoa du: gelez gain, jangela, belardia, tailerrak edota liburutegia ere. Horrek familien beharrei egokitzea eta bakoitzari egokitutako eskaintza ematea ahalbidetzen dio Kattukari; jangela dela, egonaldiak direla... Proiektu berritzaileak aparte, Kattukak prestakuntza saioak eta kafe-tertuliak eskaintzen ditu.

### Hurrengo kafe-tertuliak

#### Martxoak 7, astelehena

17:00etan Mugimenduarengarapenaren monografikoa.

#### Martxoak 16, asteazkena

17:00etan Haurren negarrari arreta eskaini. Maitasuna eta errespetua. Hizlaria: Alfredo Hoyuelos, Filosofia eta Hezkuntzako Europar doktoretzaduna.

## &gt;&gt; Arbizu



Ainara Ladronen arbizuarren babesa jaso du. UTZITAKOIA

## Ladronen espetxeratze agindua salatu dute

Arbizuarrek desobedientzia jarrerari heldu eta "desordena publikoak" egozten dioten epaitegira ez da agertu

Donostiako Auzitegiko epaile batek Ainara Ladron atxilotzeko eta espetxeratze agindua eman izana salatuz 70 arbizuarrek kontzentrazioa egin zuten herenegun. Aldi berean, Ladronen auziko guztiak aske uzteko eskatu zuten. Espainiako auzitegiak Segi gazte erakundea "terrorista" izendatu zutela salatuz Ladron eta beste lau gaztek A8 autobidea itxi zuten 2007ko ilbeltzaren 13an. "Desordena publikoak" egotzitako Donostiako Auzitegira epaitu behar zituzten bos-

tak herenegun. Baina haietatik bi besterik ez dira agertu eta beste hiruak, Ladron barne, ez dira auzitegira joan.

Ladronen Berrria egunkariari jakinarazi dionez, "ehunka gazte atxilotu eta epaitu dituzte Segi terrorista izendatzeagatik. Nahiz eta guk esandakoa bete, hori salatzeagatik epaiketa batean aurkitzen gara. Orain esaten duguna da epaitegia ez dela norgu epaitzeko, ez duela zilegitasunik". Gazteek "bizimodu normala" egiteko asmoa agertu dute. Ladronen desobedientzia, "erasoei erantzuteko" ez ezik, "herria eraikitzeko" tresna dela nabarmendu du.

### Udala

Ainara Ladron atxilotzeko eta espetxeratze epaileak eman duen agindua dela eta Arbizuko Udalak zera adierazi du: lehenik, udalak adierazi duenez, "garaia da Espainiako Estatuak behin betiko utz diezaien euskal herritarren kontra epaiketa politikoa erabiltzeari eta disidentzia politikoa kriminalizatzeari". Horrekin batera, Arbizuko Udalak Ainara Ladroni elkartasuna adierazi dio. Horrekin batera berretsi du "bai Ainarak bai euskal herritar guztiok eskubidea dugula jardura politikoa presiorik eta jazarpenik gabe aritzeko, eta protestarako ekintza bakesuez baliatzeko".

Arbizuko Udalak gogora ekarri du auzibidea Espainiako Auzitegi Nazionalean hasi zela duela 9 urte eta gaur egun Donostiako epaitegian dela. "Hiru aldiz egin da epaiketarako deialdia eta beste horrenbestetan atzeratu behar izan da. Bost gazte horietatik hiruk aspaldi erabaki zuten epaitegira ezagertzea, eraso judicialari desobedientziaz erantzuteko. Gaur, ordea, epaiketarako laugarren deialdia egin ondoren, hiru gazte horiek atxilotu eta espetxeratze agindua eman du epaileak, eta, beraz, arbizuar bat kartzelara eramateko arrisku larrian dago".

## &gt;&gt; Altsasu

### Sozialista altsasuarrek ez dute Sanchezen egitasmoa babestu

%80k ez dute PSNren eta Ciudadanosen arteko akordioa ontzat jo

Militanteek PSOEko idazkari nagusiak, Pedro Sanchezek, Ciudadanos alderdiarekin lortutako akordioa babestu dute. Eta babes horrekin Sanchez Espainiako gobernuko presidente izateko bere hautagaitza defendatu zuen asteartean eta hala egingen du gaur ere. Sozialisten %78,76k babestu zuten Sanchezen proposamena larunbatean egindako galdeketa (%51,7ko parte hartzea). Nafarroan militante sozialisten %60k parte hartu zuen kontsultan eta %82,69 alde agertu zen. Sozialista altsasuarren %80 inguru, berriz, PSOE-Ciudadanos akordioaren kontra bozkatu zuten. Altsasuko PSNko idazkari nagusi Juan Miguel Perez Hurtadok esan digunez, "akordioak ez du ibilbiderik". Perezek gaineratu duenez, akordioa aztertu zuten eta "urardotutua" zela iruditu zitzaizkien; "gizarte arloan gehiago espero genuen" gaineratu du. Sozialista altsasuarren esperantzak bihartik aurrerako negoziazioaldi berrian daude.

## &gt;&gt; Altsasu



Txirinbuloko sarrera.

### Izen ematea Txirinbulon

Martxoaren 16ra arte aurrematrikulazioa egin daiteke

Altsasuko 0 eta 3 urte bitarteko haur eskolan izena emateko epea zabalik dago. Aurrematrikulazioa ikastetxean bertan egin daiteke, 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara, txirinbulohaur eskola@altsasu.net e-posta helbidean edo 948 564 422 telefonora hots eginez.

Txirinbulu haur eskolan izena emandako haurren garapena bost esparruren bidez lantzen dituzte: afektua eta gizarte harremanak, gorpuzta, ingurune sozial eta fisikoaren ezagutza, komunikazioa, hizkuntza eta gorputz adierazpena. Horretarako jolas librea eta gidatutako jarduerak, ikusentzunezkoak, psikomotritzitatea, joko heuristikoa, altxorren otarra, plastika edota guraso tailerrak izaten dira.



## » Irurtzun

**Irurtzango Udalak 1.887.000 aurrekontua onartu du, joan den urtean baino 5.000 euro gutxiago**

Aurrekontuez galdetuta, Aitor Larraza Carrera Irurtzango alkateak zehaztapena egin nahi izan du: "lehenik esan behar, gainontzeko herrietan bezala, krisialdiak baldintzatutako aurrekontuak izan direla. Eraikin eta industriaguneeek mugimendu gutxi dute. Kobratzen ditugun eta Nafarroako Gobernutik etortzen den finantziazioan oinarritzen dira". Foru administrazioak udalendako diru gehiago agindu du eta gauzatu gero "ongi etorria" izanen dela azaldu digu Larrazak. Aurrekontua osatzeko irizpidez galdetuta, alkateak esan digu "gizarte arlorako ahalik eta diru kopuru handiena mantentzea eta inbertsioetarako diru-sail dexentekoa egotea" ahalegindu direla.

Irurtzango aurrekontuetan enplegurako 190.000 euro daude, "beste urtekoen antzekoa". Gizarte Zerbitzuen bidez egiten diren kontratazioetarako 84.000 euro bideratuko dira. Une honetan hiru pertsona daude bide horretatik kontratatuta. Eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren laguntzak egiten dituen kontratazioetarako 105.000 euro izanen dira. Bi langile gazte txokoan ari dira dagoeneko. Martxo bukaeran sei hilabeteetarako sei kontratu egiten ditu udalak (bi kibusgile eta lorezaintza eta garbiketaren lanetan aritzeko langileak). Udan igerilekuaren martxa bideratzeko beste zortzi langile kontratatuko ditu udalak. 19 kontratazio guztira.

# Udalak enplegurako 190.000 euro



Irurtzango Udalak 1.887.000 euroko aurrekontua onartu du eta enplegurako 190.000 euro bideratuko ditu. ARTXIBOA

Inbertsioetara 74.000 euro bideratu ditu Irurtzango Udalak. Irurtzundarrek erabakiko dute haietatik 35.000 euro zertan inbertituko diren. Parte-hartze aurrekontuen bidez izanen da hori. Haiek lantzen dituen lan taldea prozedura aurreratu du eta irurtzundarrei kontsulta udaberrian egingen zaie. Udaltxearen sarreraren, jubilatuen elkartearen biltegian zen espazioan, komuna publikoak egingen dituzte aurtun. Horretarako, 25.000 euro bideratuko ditu udalak. Frontoian eta hilerrian izanen diren obra txikiak osatzen dute inbertsioaren atala.

## Tramitazioaz

EH Bilduk udalean gehiengoa du eta aurrekontuak prestatzerakoan arlokako lan taldeetan landu zituzten aurrekontuak. Udalean ordez-

## Hondakinen kudeaketa

Europako Batasunak 2020rako hondakinen birziklatze tasak handitzeko eskaera egin du. Irurtzunen auzokonpostaren aldeko apustua egin dute. 2014ko urte akaberatik zortzi auzokonpostagailu daude herrian barna. Bakoitzaren kudeaketaz bi boluntario arduratzen dira eta Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko langileak pozik daude irurtzundarren jarrerarekin. Larrazak esan digunez, "auzokonpostarena pauso txiki bat da, baina

beharrezkoa zena. Jendeak oso ongi hartu du. Hoberena izan da beste jende askok beldurra kendu diola. Pixkanaka beste pauso batzuk ematen joan beharko dugu".

Irurtzango birziklatze tasa handitzeko udala Mank-ekin harremanetan dago. "Bizpahiru bilera egin ditugu haiekin. Duela bi urte hitzarmen bat genuen, gauza bategatik edo besteagatik sinatzeko gelditu dena". Auzo-konpostagailu gehiago jartzeko finantziario eta beste jaso nahiko lituzkete hartan. Mank-eko aurrekontua onartu ondoren izan daiteke.

## Eskola handitzea

Larrazak jakinarazi digunez, Hezkuntza Departamenduari bilera izan dituzte Irurtzunen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutua eraikitze eskatzeko. "Guk bezala, Nafarroako Gobernuak ez duela halako erakuntza bat egiteko dirurik esan digute. Guk eskaera egiten segituko dugu". Udalak institutua kokatzeko lur-saila badu. Bitartean, urtero moduan eskolan mantentzen lan egiteko diru-saila jaso du aurrekontuetan.

eta independente baten bozekin eta 4 abstentziorekin (3 independente eta UPNko 1) onartu zen.

Onartu aurretik irurtzundarrei aurrekontuaren nondik norakoak azaldu zituzten Larrazak. Auzoka antolatutako sei bileretan izan zen. Saio haietan irurtzundarrek auzo bakoitzean zituzten gabezien berri eman zioten alkateari. "Osoprobetxugarriak izan ziren deialdi haiek. Jendeak ongi hartu zuen ideiak udalarekin partekatzea. Bizpahiru gauza egiten hasi gara, halako arazorik zegoenik ez genekielako. Guk herria osotasunean ikusten dugu, baina auzoetako arazo puntualak ez gara ohartzen". Halakoak egiten jarraituko dute, "seguraski". Alkateak aurrekontuaren lotu baina, "egin beharrekoekin" lotu ditu bilera horiek.

## » Lakuntza

## Bi lakuntzarren auzia, artxibatua

Espainiako Auzitegi Nazionalak Ismael Moreno epaileak bi lakuntzarren kontra zabalik zegoen auzia artxibatu egin du. Joan den urteko Lakuntzako festetan euskal preso- en eskubideak aldarrikatzeko ekimena egin zen. Han parte hartzeagatik bi lakuntzarrei "terrorismoa goraitzea" leporatu zieten. Antolatutako zirenekin jasotako dirua "defentsa gastuak ordaintzeko eta euskal preso senideei emateko" izanen da. +www.guaixe.eus

## » Arakil

## Gimon aske

**Maria Esparza bere koinata izurdiagarrak espero du "hau gaixo larri dauden gainontzeko presoendako bidea izatea"**

Lorentxa Gimonek Krohn izeneko gaixotasun larri eta kronikoa dauka. 13 urte egin ditu espetxean. Borroka luzearen ondoren, asteartean Britainiako Roazhongokartzelatik atera zen angeluarra. Izurdiagako Maria Esparza Luri, Arakilgo Udaleko EH Bilduko zinegotzia, presoaren koinata da eta lan handia egin du bere koinataren askatasuna eskatzeko burutu diren ekimenetan, Iparraldeko abertzaleekin batera. Gimonen beraren eta senitartekoen eskariz, ez dizkiote harre- ra bereziko ekitaldiak egin "haren osasunak duelakoz lehentasuna". Gimonek gaixotasuna oso aurreratu du. Espetxean ezin zituzten behardituen zainketak eman. Azken hilabeteotan hirutan izan da ospitalean. Etxekoak pozik daude: "Egin ditugun dinamikengatik dago aske Lorentxa. Borroka, ez dago beste biderik. Eta espero dezagun Lorentxaren kasua aurrekaria izatea larriki gaixo dauden beste presoendako" gaineratu du Esparzak.

karitza duten independenteei eta UPNko zinegotziei helarazi zituzten. Haiekin "puntu batzuk ados-

tu genituen, baina ekarpen handirik ez zuten egin", azaldu digu alkateak. Aurrekontua EH Bilduren 6

## » Sakana

## Xabier helburu

Kristau fededun askok igandean Xabierko gazteluko bidea hartuko dute, aurreneko Xabierraldian. Animatuenean biharko arratsalde-gaua oinez egingen dute bidea, igandean, 8:00etan, Zangozan izateko. Ordu horretan abiatuko da Xabierrerako gurutze-bidea. Behin gazteluan, 10:00etan, meza izanen da. Bigarren Xabierraldia hilaren 12an izanen da, larunbatarekin. Gurutze-bidea Zangozatik 15:00etan abiatuko da eta, bi ordu geroago meza hartuko du gaz-



telu aurreko zelaia.

Xabierrerako kristau erromesaldien 76. edizioa da aurtengoa. Ohi bezala, grazia bederatziruena izanen da ere. Haren barruan, Sakana hartzen duen Mendialde eskualdetik Xabierra asteazkenean joan dira ere, meza izanen da. Misericordiaren erromesak leloa dute aurtun Xabierraldiek.

## Cava festarako boluntario bila

Lakuntzak, estreinakoz, cava festa hartuko du. Maiatzaren 20an, 21ean eta 22an izanen da. Kataluniako zortzi cava dastatzeko aukera izanen da, baita bazkaltzeko eta afaltzeko aukera ere. Jatekoak Txingurriye elkarteok eskainiko dituzte. Hiru egun horietan festak behar bezala aurrera egiteko boluntarioak behar dira. kultura@lakuntza.eus e-posta helbidera zuzendu daitezke. Ideie ere ongi etorria egingen diete.

**PORTUKO** okindegia

**PORTUKO OKINDEGIA**

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988  
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153

www.pescaderiamariaeugenia.com  
Arratsaldez zabalik

**zozketa**

Kilo erdi angula martxoaren 19an

**mariaeugenia**  
Arrainak

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

## Martxoak 8, Emakumeen Eguna

## » Irurtzun



SSSS

## Emakumeari Buruzko Jardunaldiak bueltan

Emakumeen Eguna dela eta, Irurtzongo emakumeen taldeak 23. aldiz Emakumeari Buruzko Jardunaldiak antolatu ditu. Gaur hasi eta hurrengo astean zehar emakumea ardatz duen programazioa garatuko da. Eskaintza Kultur kontseiluaren eta Irurtzongo Udalaren laguntzaz osatu da.

Ondoren, Lorena Arangoaren emanaldia.

## »» Martxoak 6, igandea

10:00etatik 14:00etara Argazki rallya. (Azalpenak 10:00etan Erga Larreak elkartean).  
19:00etan El club de las lanas. Irurtzongo antzerki tailerra. Kultur etxean.

## »» Martxoak 9, asteazkena

18:00etan Zinemara irteera. Plazan hitzordua.

## »» Martxoak 11, ostirala

20:00etan ITB (inauteriak) eta berdintasunari buruzko film laburrak, Pikuxarren.

## »» Martxoak 12, larunbata

16:30ean Kafe hitzaldia. Desmeninas Emperdedoras taldea, kultur etxean.

## »» Martxoak 13, igandea

19:00etan Aurora Beltranen kontzertua, kultur etxean.

## Egitaraua

## »» Martxoak 4, ostirala

20:00etan eta 20:30ean El club de las lanas. Irurtzongo antzerki tailerra. Kultur etxean.

## »» Martxoak 5, larunbata

20:00etan El club de las lanas. Irurtzongo antzerki tailerra. Kultur etxean.  
22:00etan Afaría Erga Larreak elkartean.

## » Arbizu

## Emakumeak ardatz dituen egitaraua Arbizun

## Egitaraua

## »» Martxoak 4, ostirala

20:00etatik aurrera Pintxo-pote feminista. 23:00etan Kaxionoren alabak-en kontzertua eta ondoren gaupasa, Argi Bidea elkartean.

## »» Martxoak 8, asteartea

18:00etan Ipuin ez sexisten kontalaria, liburutegian.  
19:00etan Sakana feminista, Sakana askea!!! Eskualdeko manifestazioa, Altsasun.

## »» Martxoak 11, ostirala

18:00etan Emakume idazleen lanetan oinarritutako solasaldia, Castillo Suarezek gidatuta. Udaletxeko batzar gelan.

Arbizuko emakume taldeak gaur hasi eta heldu den ostirala bitarteko egitaraua prestatu du Emakumeen Eguna dela eta. Musika eta parrandarekin hasiko da gau egitaraua. Astearterako ipuinak eta ostiralerako literatura dira programazioaren ardatza. Azken hori emakume idazleen testu eta argazkietan oinarritua izanen da. Ludoteka zerbitzua izanen da.

Asteartean Altsasun eginen den Sakana mailako manifestaziorako deia egin dute.



## » Olatzagutia

## Egitaraua

## »» Martxoak 5, larunbata

20:00etan Dando el cante, Inma la Bruja. Kultur etxean.  
22:00etan Afaría, kiroldegian.

## »» Martxoak 8, asteartea

18:30ean Auzatea, Altsasuko Gure Etxea eraikinean.  
19:00etan Sakana feminista, Sakana askea!!! Eskualdeko manifestazioa, Altsasun.

## »» Martxoak 9, asteazkena

19:30ean Camino hacia la luz. Otra mirada sobre las mujeres del Karakorum pakistani. Hizlaria: Txaro Otxandorena. Kultur etxean.

## »» Martxoak 18, ostirala

19:30ean Vienen a violar a nuestras mujeres: desmontando los discursos xenófobos sobre violencia sexual. Hizlaria: June Fernandez. Kultur etxean.

## »» Martxoak 22, asteartea

19:30ean Itziar Zigaren Malditas, una estirpe transfeminista liburuen aurkezpena, kultur etxean.



## Emakumeen eguna baino gehiago

Olatzagutiko Berdintasun Lan Taldeak Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta bihar hasiko den egitaraua prestatu du. Honako leloa du: Feminismoa ez da matxismoaren kontrako, ezberdintasunaren antidoto onena baizik. Orain inoiz baino beharrezkoagoa! Bihar bertan afaría izanen da. Txartelak udaletxean edo kiroldegian 18 eurotan eskuratu daitezke. Olatziarrak Sakana mailako manifestazioan parte hartzera hots egin dituzte, Altsasun, asteartean.

## «Pikara» aldizkari feministaren hitzaldia

Bestalde, Pikara, on-line magazine feministako zuzendari eta sortzaile June Fernandezek hitzaldia eskainiko du. Baita Baltistan fundazioko kide Txaro Otxandorena ere. Azken horrek Pakistan go emakumeak ahalduzko eta tokiko garapen endogenoa garatzeko fundazioak azken 12 urteetan egindako lana azalduko du. Gerero zapalkuntzaz aparte bizitzako gainontzeko zapalkuntzen kontra borrokatu zuten emakume sail baten berri ematen du Itziar Zigak bere liburuan, programazioa despeditzeko Olatzagutian aurkeztuko duena.

## » Altsasu



## Emakumearen Egunatik hitzordu ugari

Martxoaren 8aren inguruko egitaraua Altsasuko Udaleko Emakumearen Bilguneak, Gazteria Zerbitzuak eta mugimendu feministak antolatu dute. Azken horrek bat egin du Emakumeen Egunean bertan Sakanako mugimendu feministak Altsasun deitutako manifestazioarekin. Hura hasi baino ordu erdi lehenago, 18:30ean, emakumeak elkartzea eta auzateaz gozatzeko gonbitea egin diete. Hala ere, astelehenerako iragarri duten hitzaldian internazionalismoa eta emakumea izanen da hizketagaia. Ostegunerako, mugimendufeministak neskendako eta emakumeendako tailerra antolatu du: Respuestas combativas ante la violencia machista.

Intxostiapunta gazte guneak, bestalde, 15 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako bi jarduera hartuko ditu. Lehena, domekan izanen dena, genero ezberdintasunak antzemateko gakoak emanen ditu. Eta, horrekin batera, nera-been arteko erlazio interpersonalek egokiak garatzen lagundu eta maitasun erromantikoaren mitoak identifikatu eta apurtzeko irizpideak eman nahi dira. Emagin-eko

hizlariak izanen dira *3 m sobre el cielo? Oinak lurrean hobe saioa* emanen dutenak. Heldu den asteburuan Zoila Berastegi Mariñelarenak zuzendutako tailerra eskainiko du: Barruan den altxorren bila. Neskek, bakoitzak bere burua munduan nola ikusten duen jakiteko balioko du saio bikoitzak. Munduaren aurreko nesken jarra-za aztertu eta lantzeko dramatizazioa erabiliko dute.

Ultra-trailetan eskarmentu handia duen korrikalari batek, Uxue Fraile Azpeitiak, bere lekukotza emanen du Iortia kultur gunean asteazkenean. Aste bat geroago, toki berean, Assata Shakur Kuban errefuxiatua bizi den Amerikako Estatu Batuetako iraultzailearen autobiografiari buruzko literatura-solasaldia gidatuko du Maria Castejon Leorzak. Aurretik, hilaren 13an, domeka goizean, emakumezkoen lasterketa ez lehiakorra lilasterketa jokatuko da. Izen ematea [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com) web orriaren edo 948 564 823 telefonoren bidez egin daiteke. Edo domekan bertan, 11:00etan, Gure Etxea eraikinean.

## Egitaraua

## »» Martxoak 6, domeka

18:00etan 3 m sobre el cielo? Oinak lurrean hobe. Hizlariak: Emagin. Intxostiapunta gazte gunean.

## »» Martxoak 7, astelehena

19:00etan Feminismoa eta internazionalismoa. Mugimendu feminista eta Askapena. Gure Etxean.

## »» Martxoak 8, asteartea

18:30ean Elkartzea eta auzatea. Foru plazan. Mugimendu feminista.  
19:00etan Mani-festa-akzioa: Sakana feminista, Sakana askea! Mugimendu feminista.

## »» Martxoak 9, asteazkena

19:00etan Uxue Fraile Azpeitia, ultra-trailetako korrikalaria, Iortia kultur gunean.

## »» Martxoak 10, osteguna

19:00etan Erantzun iraultzaileak indarkeria matxistaren kontra. Las Farrucas. Gure Etxean. Soilik emakumeendako. Mugimendufeminista.

## »» Martxoak 12, larunbata

18:00etan Barruan den altxorren bila, neskendako tailerra, Intxostiapunta gazte gunean. Zoila Berastegi Mariñelarena.

## »» Martxoak 13, domeka

11:30ean III. Lilasterketa, Foru plazatik.  
18:00etan Barruan den altxorren bila, neskendako tailerra, Intxostiapunta gazte gunean. Zoila Berastegi Mariñelarena.

## »» Martxoak 16, asteazkena

18:00etan Assata Shakur. La Lucha desde la raza liburuar buruzko tertulia, Maria Castejon Leorzarekin, Iortia kultur gunean.



## Martxoak 8, Emakumeen Eguna



## Udala emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde

Altsasuko Udalak azken bilkuran Emakumeen Egunaren inguruko instituzio-adierazpena onartu zuen. Altsasuko udal hautetsiek adierazpen horretan onartu zuten, “feminismoa ez da matxismoaren kontrakoa, ezberdintasunaren antidoto onena baizik. Orain inoiz baino beharrezkoagoa!” Altsasuko Udalak, gainera, hiru konpromiso hartu zituen. Lehena, “tokian tokiko ikuspegitik lanean jarraituko dugu emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde”. Bigarrena, “mugimendu feministari sostengua eta babes eman diogu bere eskaera eta borroketan”. Eta, azkenik, “berdintasun printzipioa bermatuko dugu politika publiko guztietan”. Martxoak 8a dela eta hona Altsasuko Udalen adierazpena:

Martxoaren 8a urtetik urte orotzen dugun eguna dugu, emakume guztiendako eskubide guztien aldarrikapen feministaren eta erresistentzia historikoaren inguruan kokaturik. Ukaezinak dira emakumeek eskuratu dituzten lorpenak. Emakumeak gero eta prestatuago daude, gero eta alor gehiagotan, askatasun gehiagorekin, gero eta ahaldunduago daude eta gero eta gehiago dira dagokien eremu soziala aldarrikatzen dutenak.

Emakumeak berdintasunaren eta ahaldunduzaren aldean egin

dako aurrerapenei aurre egin nahian, matxismoaren berrarmatze ideologikoak erantzuten die, azken urteotan ikusten ari garen bezala. Neomatxismo izenpean hainbat diskurtsu matxisten indartzea dago. Hauek genero desberdintasunak eta emakume nola sexualitate ez-normatiboen kontrako indarkeria esplizituki nahiz ezkutuki erlatibizatzen eta babesten dute. Emakumeen kontrako indarkeria darabilte politika arrazista eta islamofoboak sustatzeko, emakumeen eskubideen defentsaren itxurapean. Horren erakusle argia da gabon zaharrea Alemaniako hainbat hiritan izandako eraso sexisten ondoren gertatu dena.

Beste alde batetik, egun berdintasunaren irdudikerian bizi gara. Hau da, emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortu izanaren sentsazio orokortua dago. Baina uste oker horrek ez du inolaz ere errealitatea erakusten. Izan ere, soldata-arrailak argi adierazten du emakumeek bataz beste %27 gutxiago irabazten dutela. Kristalezko sabaia mantentzen da, emakumeak dira oraindik ere etxekolanez nagusiki arduratzen direnak baita zaintza-lanez ere. Oraindik, bikotekide zein bikotekide ohiek emakumeak erailtzen dituzte. Indarkeria sexualak jarraitzen du. Tratu txar eta abusu harremanen

oinarrian oraindik dago maitasun erromantikoaren ideala. Eta azken hau, neurri handiagoan ematen da gazteen artean.

Feminismoak defendatzen du emakumeek gizonen eskubide berak izan behar dituztela. Hori dela eta, instituzioetik mugimendu feministen lana eta ahalegina aitortu nahi dugu. Matxismoa lausoagoa eta detektatzeko zailagoa da egun eta, horregatik, feminismoa inoiz baino beharrezkoagoa da. Horixe baita emakume eta gizonen arteko desberdintasunak gainditzeko bide bakarra. Baita pertsona guztiek eskubide, betebeharrak eta aukera berak izan behar dituzten jendarteak eraikitzeko bidea.

Emakumeen Nazioarteko Eguna ospakizun/oroitzapen data izan behar du, genealogiak aitortzeko baita aldarrikapen etarako eguna ere, gure gizarte patriarkal emakumeak diskriminatzen eta ikustezin bihurtzen baititu, eta beraien kontra indarkeriaz dihardu.

Hori dela eta, emakume baten eredu aitortu nahi dugu, Wangari Maathairena. Bakearen Nobel Saria jaso zuen 2004an eta bere hitzak gogora ekarri nahi ditugu: “Zerbait lortu duten pertsona guztiak lurrean izan dira behin baino gehiagotan. Eta beti altxatu egin dira. Horixe da betidanik egiten saiatu naizena.”



Altsasuko Udalak Emakumeen Eguneko adierazpena onartu zuen joan den asteazkenean. ARTXIBOA

## » SAKANA



Mugimendu feministako kideak astearterako manifestaziorako dei eginez.

## Indarrak batu ditu mugimendu feministak Martxoaren 8 “handia ospatzeko eta aldarrikatzeko”

**Kaleak eta plazak “salaketak, aldarrikapen, abesti eta dantzekin” beteko dituzte Emakumearen Egunean**

Erkuden Ruiz Barroso

“Feminismoak egingogaitu herri”. Sakanako Mugimendu Feministak “indarrak batu” ditu aurtengo Martxoaren 8a prestatzeko. Mugimenduak azaldu duenez “jendarte eredu” ezin da indibidualki aldatu eta mugimendua ikustarazi nahi dute. Hortaz, “feministak eta emakumeon artean sare eta aliantzak” ezinbestekoak dira. Martxoaren 8rako manifestazioa egingen dute Altsasun, baina “ahaztu gabe data puntual bat besterik ez dela”; borroka egunerokoa dela gaineratu dute. *Sakana feminista, Sakana askea* izanen da leloa: “Sakana askea izango da feminista denean”, mugimendutik azaldu dutenez.

Martxoaren 8a “ospatzeko eta aldarrikatzeko” egun bat da. Sakanako Mugimendu Feministak indarrak batu ditu eta hainbat ekimen antolatu ditu. Emakumearen eguneko manifestazioa egingo dute Altsasun, 19:00etan. Aurretik askaltzeko eta “karakterizatzen” tartea

egongo da. Egun honetan morez janzteko edo gauzak moreak eramateko gonbitea luzatu dute, izan ere, esaten dutenez “morea da gure bidea”. Sakanako mugimenduari indarra eman nahi diote eta elkarrekin ospatuko dute Emakumearen eguna, “etorkizunera begira irudikatzen dugun proiektu baten hazia” izango dena, mugimendu feministaren esanetan. Baina martxoaren 8a “egun bat baino gehiagoda” eta astean zehar hainbat ekimen antolatu dituzte herri bakoitzeko mugimendu feministek.

### Indarkeria matxista Altsasun

Altsasun izandako indarkeria matxista kasuaren aurrean Mugimendu Feministak dio ez duela inolako justifikaziorik “onartu ezta sinistuko ere”. “Indarkeria sexista egiturazkoa da eta sozializazio prozesu sexista baten ondorio kulturaletik dator”. Hortaz, “gure inguruan” gertatzen denean erasotzailearen ardura estaltzen dela eta emakumea errudun egiten dela salatzen dute. Ezetza edozein kasutan ere ezetz dela gogoratu dute.

**MARTXOAK 4, OSTIRALA**  
Etxarri-Aranazko Gaztetxean  
22:00etan, bertso-saioa

**EINNEKIN**  
(Etxarri-Aranatz)  
Eneko Lazkoz  
Saats Karasatorre  
Joseba Beltza  
Unai Artieda  
Jon Arratibel

**LARUNGO ANTENAK**  
(Bera)  
Julen Zelaieta  
Patxi Castillo  
Aitor Elexpuru  
Jokin Pinatxo



Informazio osoa eta sarrerak

[WWW.BERTSOZALE.EUS](http://WWW.BERTSOZALE.EUS)

2016  
**Bardoak**

nafarroako taldekako bertso ekimena

antolatzailea



laurantzaleak

**GUAIXE.EUS**

**BELEIXE**



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 197 070**

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza [www.tanatoriosirache.com](http://www.tanatoriosirache.com)



**Gorka Larrea Ondarra**  
IV. urteurrena

Urrun egon arren,  
gertu sentitzen zaitugu.

**Bihotzez, zure lagunak**  
Bakaikun, martxoaren 3an.



**Gorka Larrea Ondarra**  
IV. urteurrena

Erraza izan zen zu maitatzea  
ezinezkoa ordea zu ahaztea,  
beti gurekin eramango zaitugu.

**Amiña Katalina, izeba Pilar, Koldo, Irene, Oihane eta Maitane**  
Arbizu-Bakaiku  
Bakaikun, 2016ko martxoaren 3an.

**Gorka Larrea Ondarra**  
IV. urteurrena



Gure bizitzak argitasuna  
galdu du zu gabe.  
Beti zure falta sentituko dugu.

**Aita, ama, Iker eta Erkuden**  
Bakaiku



BETI GURE BIHOTZETAN

**Julita Arregui Arregui**  
**M<sup>a</sup> Esther Gamboa Garcandia**  
**Carlos Areta Areta**  
**Antonio Gonzalez Alcala**

Datorren igandean, martxoak 6, goizeko 11:00etan  
Lakuntzako San Salvador elizan, beraien oroimenean  
ospatuko dugun mezara gonbidatzen zaituztegu.

**1950eko zuen kintoak eta lagunak**

**JAIOTZAK**

- **Zacaria Mbitil Aboura**,  
otsailaren 24an Irurtzunen

**HERIOTZAK**

- **Vicente Miranda Mundiñano**,  
otsailaren 20an Etxarri  
Aranatzen
- **Dionisio Irigoien Zelaia**,  
otsailaren 25ean Urdiainen

Informazio hau epaitegietan eta  
udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez  
duenak, han jakinarazi dezala.



**Dionisio Irigoien**

Familiaren partetik  
eskerrik asko  
bihotz bihotzetik.  
Ongi sentitu gara zuekin.  
Zoragarriak zarete.

Urdiain

**Oroigarriak**



**Guaixe**  
KOMUNIKAZIOA  
948 564 275

Eskertzak eta eskelak osteguneko  
goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



**Bidali mezua [zorion@guaixe.eus](mailto:zorion@guaixe.eus)-era  
edo hots egin  
948 564 275 telefonora**

**guaixe.iragarkilaburrak.com**

1 HIRIETZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

**NORBANAKOEN IRAGARKIAK**

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).  
Argazki bakoitzeko 3€.  
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.  
Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en.

**HARREMANETARAKO**

Telefonoa: 948-56 42 75  
Posta elektronikoa: [zorion@guaixe.eus](mailto:zorion@guaixe.eus)

**LANA/NEGOZIOAK****LAN ESKAINTZA****Iñaki oinetakoak.**

Etxarri Aranazaren negozioa eskualdatzen da.  
Tel 649 33 18 43.

**LAN ESKARIA****Adineko pertsonak zaintzen dira.**

Orduka etxeetan. Asteburuetan ere.  
Tel 948 46 71 69.

**Iturmendiko Aritza Elkartearen garbitzeko  
persona bat (edo gehiago) behar dugu.**  
Urtebeteko kontratua eskaintzen dugu.  
Interesatuak martxoaren 4an, arratsaldeko

19:00etan elkarteko bulegoan agertu beharko  
dira. Informazio gehiago edo zalantzak argitzeko  
619 08 67 14 telefonora deitu.

**IBILGAILUAK SALDU****Toyota urdina, Rav 4 saltzen da.**

Bost ate, gasolina, Etxarri Aranatzen. Tel 619 41  
75 93.

**Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri  
Aranatzen.**

4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta  
130 metro karratuko lursaila. Interesatuak deitu  
676 92 71 65 telefonora.

**SALGAI****Teka ontzi-garbigailua saltzen dut.**

Cutxi erabilia, bermea du. Tel 628 42 77 25.

**EROSI**

**Bigarren eskuko bizikleta estatikoa** erosiko  
nuke. Tel 699 780 772

**OHARRAK****Amalur Montessori Haur Eskola.**

Haurra bere osotasunean hartzen duen proiektua,  
beren ongizatea bermatzen duen proiektu euskal-  
duna. Harremanetarako 620 25 42 30 eta ama-

[lur@amalurelkarrea.org](mailto:lur@amalurelkarrea.org)

**Kafe tertulia.**

"Mugimenduaren garapenaren monografikoa" ren  
emanaldia. Haur bat duzu? Haurdu zaude?  
Mugimendu librea, zerbait entzun duzu? Gaiaz  
gehiago jakin nahi baduzu, martxoaren 7an, arratsal-  
deko 17:00etan Kattuka Haur Eskolan.  
Gonbidatuta zaude.

**Etxarriko irakurle taldea.**

Martxoaren 10ean, ostegunean, 19:00etan libu-  
rutegian elkartuko da Lourdes Oñaederraren  
"Babes bila" liburuz hizketatzeko.

**Kafe tertulia.**

"Haurren negarrari arreta eskaini, maitasuna eta  
errespetua". Zergatik eta zertarako egiten dute  
negar haurrek? Zer adierazi nahi dute negarraren  
bidez? Nolako da malkoen hizkuntza? Hizlaria:  
Alfredo Hoyuelos, Filosofia eta Hezkuntza Zientzia  
europar doktoretzaduna. Martxoaren 16an,  
17:00etan Kattuka Haur Eskolan.

**Altsasuko irakurle taldea.**

Martxoaren 16an, asteazkenean, 18:00etan  
"Assata Shakuv. La lucha desde la raza" liburuarri  
buruzko tertulia, Maria Castejon Leorzarekin,  
Altsasuko lortia kultur gunean.



## ATLETISMOA

**EMAN IZENA ALTSASUKO III. LILASTER-KETAN:** Martxoaren 13an jokatu da Altsasuko III. Lilasterketa, emakumeendako

lasterketa ez lehiakorra. Izena ematea dohainik da, [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com) web gunean.

## kirola &gt;&gt;

## Motoziklismoa



Marcos Beraza eta Unai Mugica.

## Marcos Berazak bikain hasi du denboraldia

Espainiako 2016ko Cross Country txapelketako Guadalajarako proban irintarra lehen juniorra izan zen scrachean

Aurreko asteburuan hasi zen Espainiako Cross Country Txapelketa, Guadalajarako zirkuituan jokatu lasterketekin. 200 pilotu baino gehiago lehiatu ziren, senior, junior, senior B 2T, senior B 4T, beterano, master eta emakumezkoen kategoriatan. Scrach modalitatean, azkarrenaren sailkapenean, hain zuzen, Marcos Beraza irintarra hirugarrena sailkatuzen, junior mailako lehena. Hurrengo proba hilabete bat barru jokatu da, San Martin del Vallesen.

### BERAZA ETA MUGICA NACIONAL LENDUROAN

Asteburuan hasi zen Nacional de Enduro txapelketa, Almeriako Antosen. 230 pilotu lehiatu ziren, Marcos Beraza irintarra eta Unai Mugica tartean. Marcos Beraza junior open mailan lehiatu zen. Jordi Quer izan zen irabazlea (36:04) eta Marcos Beraza bosgarrena sailkatu zen (37:23). Scrach modalitatean, azkarrenaren sailkapenean, 18.a sailkatu zen Beraza.

Bestalde, Unai Mugica senior B 4T mailan aritu zen. Jordi Piñol nagusitu zen (26:05) eta Unai Mugica 7.a sailkatu zen (27:37).

## Pilota

# Altsasun irabaztera!

**Ezkurdia: "Gure pentsamenduan irabaztea, ez dago besterik"**



"Bezperan urduritasuna eta tentsio puntua agertuko dira, baina ilusioarekin gaude, gogotsu entrenatzen eta igandea ailegatzeko gogoekin" adierazi digu Joseba Ezkurdiak. "Gure aukera bakarra igandeko partida irabaztea da, eta gure pentsamenduan irabaztea, ez dago besterik. Horrela, arerioekin puntutara berdinduko genuke eta tanteo nahiko ona dugunez, 22 eta 20 irabaziz ere uste dugu nahikoa izango genukeela finalerdietarako sailkatzeko" gaineratu du arbizuarrak. Barriola ongi dagoela azaldu digu. "Eskuz justu zegoen Abel eta aurreko astean atseden hartzea erabaki zuen, azken partidara ongi ailegatzeko. Erabaki zuzena. Asteazkenean Altsasun entrenatu genuen, entrenamendu serioa eta fuertea, ez zuen molestiarik izan eta uste dut igandean ez duela arazorik izango". Oinatz eta Untoriaren kontrako partida zaila izango dela onartu du Ezkurdiak. "Pareja sendoa da. Joanekeo partidari, Labriten, 22 eta 21 galdu genuen euren kontra. Partida ona izan zen, bizia eta gogorra. Zaila daukagu. Defentsa handia dute eta Oinatzek asmatzen duen egunean oso arriskutsua da. Ea nola hasten den partida. Gu abiadura ematen eta mina egiten saiatuko gara, partida serioa egiten, eta aurrean Oinatz abiadurarekin jokatzeko gara. Ea nola hasten garen eta partidari barrena sentsazioak nolakoak diren... partidari zehar ikusiko da hori" nabarmendu du Arbizuko aurrelariak.

**Binakako finalerdietarako sailkatzeko, Ezkurdi eta Barriola Bengoetxea VI.aren eta Untoriaren kontra irabaztera derrigoruta daude igandean Altsasun**

Binakako Pilota Txapelketan emozioa pil-pilean egongo da azken jardunaldira arte. Asteburuan 13. jardunaldia jokatu zen. Joseba Ezkurdiak eta Abel Barriola ordezkatu zuen Cecilio Olaizola II.a eta Urrutikoetxea izan zituzten aurkari. Goizuetako sekulako lezioa eman zuen, eta ikusgarri aritu zen Urrutikoetxearekin batera, 7 tantotan utzi zituzten Ezkurdi eta Cecilio.

Bestalde, Artolak eta Albisuk 22 eta 20 irabazi zieten Irribarriari eta Merino Lari partida oso estuan, euren zazpigarren puntua lortuz.

Dagoeneko Binakako finalerdietarako sailkatuta daude Irujo-Rezusta eta Olaizola II.a-Urrutikoetxea, eta zazpina puntu dituzte Bengoetxea VI.a-Untoriak eta Artola-Albisuk. Ezkurdiak eta Barriolak 6 puntu dituzte. Hortaz, azken jardunaldi honek erabakiko du finalerdietara nor pasako diren. Ezkurdiak eta Barriolak igandean Altsasun irabazten badu-

te, 7 puntutara berdinduko luke, eta nahiko tanteo ona dutenez, finalerdietarako sailkatuko lirake. Galduz gero, finalerdietatik kanpo geratuko lirake.

### Altsasuk erabakiko du

Beraz, igandeko Altsasuk partidak erabakiko du. Ezkurdiak eta Barriolak egungo txapelketan Bengoetxea VI.aren eta Untoriaren kontra jokatu dute, eta irabaztea, ez dute besterik. Jaialdia zabaltzen duen partidari, Retegi Birekin arituko da profesionaletan debutatu berri duen

## Binakakoa.

### 14. jardunaldia

**Retegi Bi-Merino II.a / Irribarria-Merino** (ostiralean, 22:00etan, Urretxun. ETB1, ntb)  
**Irujo-Rezusta / Artola-Albisu** (larunbatean, 17:45ean, Iruñean. ETB1, ntb)  
**Olaizola II.a-Urrutikoetxea / Victor-Beroiz** (larunbatean, Amorebietan)  
**Bengoetxea VI.a-Untoria / Ezkurdi-Barriola** (igandean, 17:00etan, Altsasun. ETB1, ntb)

## Binakakoa. Sailkapena

1. Irujo-Rezusta:	12 puntu
2. Olaizola II.a-Urrutikoetxea:	10 puntu
3. Bengoetxea VI.a-Untoria:	7 puntu
4. Artola-Albisu:	7 puntu
5. Ezkurdi-Barriola:	6 puntu
6. Victor-Beroiz:	5 puntu
7. Retegi Bi-Merino II.a:	3 puntu
8. Irribarria-Merino:	2 puntu

Julen Martija etxeberriarrak, Jau-narenaren eta Urruzolaren kontra egiteko. Eta, azken partidari, 2. mailakako Binakakoan, Gorkak eta Tolosak Arteaga eta Imaz izanen dituzte aurkari.

Etxean jokatzeari kontenutu dago Ezkurdiak. "Zaleak alde izatea, hori gure aldeko baza inportantea izango da. Babes horrekin gehiago motibatzen zara, %100 baino gehiago ematen duzu. Beste motibazio bat da. Bultzatu bezala egiten dizujendeak" azpimarratu du. "Gure asmoa txapelketako azken uneraino bizirik ailegatzea zen, pelean egotea. Hiruzpalau partidari ez gara egindakoarekin gustura geratu, baina, bestalde, nahiko erregularrak ari gara izaten txapelketan. Finalerdietarako partida bakarra dugu aurretik eta aukera hau aprobetxatu beharra dago. Gogo ikaragarriekin gaude, eta ea igandean gauzak ongi egiten ditugun eta partida aurrera ateratzen dugun" dio arbizuarrak.

## Pilota

# Zabaleta: "oraindik berde nago"

"Betiko Zabaleta izateko" lanean segitzen duela aitortu digu Etxarrego atzelariak

11 hilabete frontoitik kanpo egon ondoren, astelehenean kantzara itzuli zen Jose Javier Zabaleta pilotaria. Tolosako Beotibarren Elordirekin batera aritu zen, eta 15 eta 22 galdu zuten Mendizabalen eta Tolosaren kontra.

"Frontoietan berragertu naiz eta alde horretatik ongi sentitzen naiz. Oraindik flojo xamar ikusten naiz, entrenamendu fuertea

gutxi egin ditut. Asteleheneko partida lehenengoan izan zen eta jakitun naiz partida asko jokatu beharko ditudala lehengo Zabaleta izateko. Min guztiak joan dira eta alde horretatik pozik nago; astero-astero entrenatzen arituko nahiz denbora gutxian ongi-ongi jartzeko" azaldu dio Guaixeri Etxarrego pilotariak.

Azken hilabeteak zailak izan dira. "Aurreko urteko Binakakoan Ezkurdiarekin nengoela hasi ziren oinazeak. Eskuin hankako txor-



Zabaletak ongi prestatu nahi du bere sasoi bete berreskuratzeko.

katilean hezur txiki bat txikitatik deformeneukala esan zidaten. Pasa den urtera arte ez ninduen inoiz molestatu, baina bat batean hezur hori tendoia ukitzen hasi zen eta tendoian nabaritzen nuen mina. Kirofanotik pasa nintzen, dena

ongi atera zen eta hiruzpalau hilabete inguruko gauza izango zela esan zidaten. Baina hura sendatu nuenean eskuan sortu zitzaidan arazoa" aipatu digu Zabaletak.

Izan ere, eskuan berruga edo garatxo bat atera zitzaion. "Oso

handia egin zen eta jokatzekoan mina ematen zidan. Ezinezkoa nuen jokatzeko. Hilabeteak bueltaka ibili naiz, medikuekin, dermatologoekin... eta azkenean naturista batek belar batzuekin egindako ukendu batekin erabat desagertu zait garatxo. Joan da eta ez da deus nabaritzen. Ikaragarri pozik nago" aitortu digu Etxarrendarrak.

Helburua, gutxinaka indarra hartu eta ongi prestatzea da. "Oraindik berde nago partida handiak jokatzeko. Denborarekin onera egin eta esaten badidate buruz burukorako prestatzeko, hala eginen dut. Bestela, udako torneotarako prestatuko naiz, gogo handiz. Herrietako festetan jokatzeko polita izango da" azaldu du Zabaletak.

## Duatloia



Duatloirako prestatutako boxak, elurrez estalita. SAKANA TRIATLOI TALDEA

## VII. Altsasuko Duatloia, bertan behera

Elurragatik ezinezkoa izan zen Nafarroako duatloi egutegia zabaltzen zuen proba jokatzeara

Elurragatik eta eguraldi baldintza kaxkarrengatik bertan behera geratu zen Sakana Triatloi Taldeak larunbatean antolatutako VII. Altsasuko Duatloia, aldi berean Nafarroako Sprint Duatloi Txapelketa izan behar zuena. 157 duatleta zeuden izena emanda baina elurra zela eta, ezinezkoa izan zen proba burutzea. Aurretik, goizean, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria zen kategoria txikiko probak jokatzekoak ziren Txioika ikastolaren inguruetan. 103 neska-mutiko zeuden izena emanda, baina elurragatik ezin izan ziren aritu.

### Segurtasunagatik

“Epaileekin eta poliziako ardura-dunekin egindako bileraren ondoren, proba bertan behera uzteko erabakia hartu dugu. Ibilbide guztian barna elurra dago eta segurtasunagatik proba bertan behera uztea erabaki arduratsuena dela iruditzen zaigu” azaldu zuten Sakana Triatloi Taldeko kideek larunbat goizean.

Oraindik ez dakite proba beste egun batean ospatzerik izango duten. “Egutegia betea dago eta, nahiz eta oraindik guztiz ez konfirmatu, ziurrenik ezingo dugu Altsasuko proba aurten antolatu. Izugarri sentitzen dugu, baina gauzak horrela dira” gaineratu dute antolatzaileek.

## Futbola

## Etxarri, Lakuntza eta Altsasuko partidak bertan behera

Zelaiak zurituta zeuden eta 22. jardunaldiko partidak aurrerago jokatu beharko dituzte gure taldeek

Larunbatean eta igandean zurituta zeuden Etxarri Aranazko San Donato, Lakuntzako Zelai Berri eta Altsasuko Dantzaleku futbol zelaiak. Hori zela eta, preferente mailan Etxarri Aranatzek Burladesen kontra eta Lagun Arteak San Jorgeren kontra eta erregional mailan Altsasuk Salesianos en kontra jokatu beharreko partidak ezin izan ziren jokatu. Beraz, 22. jardunaldiko partidak hauek aurrerago jokatu beharko dituzte gure taldeek, Nafarroako Futbol Federazioak zehazten duen datetan.

### Hurrengo jardunaldia

Preferente mailan Gares da liderra (44 puntu). Etxarri Aranatz 5.a da (34 puntu) eta Lagun Artea 6.a (34 puntu), biak partidak bat gutxiagorekin. Asteburuan sailkapenean 10.a den Berriozarren kontra jokatuko du Etxarri Aranatzek, 16:00etan, Berriozarren eta 2.a den Rotxapea izango du aurkari Lagun Arteak larunbatean, 15:45ean, El Iratin.

Bestalde, erregional mailako liderra Lezkairu da (54 puntu). Altsasuk 9. postuan jarraitzen du (27 puntu), partidak bat gutxiagorekin. Lezkairu liderraren kontra ariko da Altsasu larunbatean, 19:45ean, Lezkairuko Sotoan.



Lakuntzako Lagun Artea taldeko Zelai Berri, elurrez estalita. UTZITAKOEA

## Txirrindularitza

## Jon Irisarrik ezin izan zuen Espainiako Kopako lidergoa defendatu

Guerrita Trofeoan erorikoa izan zuen

Asteburuan Guerrita Trofeoa jokatuta da, Espainiako Kopako baliagarria zen bigarren proba. Rural Kutxako Jon Irisarrik ezin izan zuen Espainiako Kopako 23. urtez azpiko lidergoa defendatu, erorikoa izan zuelako eta proba utzi behar izan zuelako. Contador Fundazioko Alvaro Cuadros granadarrak ihes egin zuen helmugarako 70 kilometroren faltan eta inork ezin izan zion jarraitu. Helmugara bakarrik iritsi zen (4:06:58), eta 3:26 atera zizkion Lizarteko Marcos Jurado buru zela sartu zen zazpi txirrindulariz osatutako taldeari. Rural Kutxako lehentxirrindularia Josu Zabala izan zen, helmugara 27. postuan sartu zena. Talde sakandarreko Ander Alonso, bigarrena sailkatu zen tartekako helmugako sailkapenean.

Espainiako Kopako hirugarren proba igandean jokatuko da Zizurkil-Asteasun, XIII. Aitzondo Klasikoa, 10:00etan (138,6 km).

### PABLO ALONSO SEIGARRENA ZUMAIAN

Larunbatean Zumaiako Saria jokatuta zen, Euskaldun Torneoaren mustuzen proba (112 km). Aldro Team taldeko Julen Amariña izan zen irabazlea, helmugara bakarrik iritsi eta gero (2:48:38). Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarreko Pablo Alonso seigarrena iritsi zen helmugara, minutu eta erdira (2:49:01).

### LEHENDAKARI TORNEOA ABIAN

Asteburuan abiatuko da Lehendakari Torneoaren bertan 23. urtez azpiko afizionatuak lehiatuko dira. Larunbatean jokatuko da lehendabiziko lasterketa, XIII. Ereñoko Udala Sari Nagusia, 10:30ean hasiko dena (105,4 km).



## Juniorrak hasi dira lanean

Quesos Albenizeko Asier Etxeberria 13.a sailkatu zen Villatuertako 38. San Veremundo lasterketan

Igandean hasi zen junior mailako 2016 denboraldia, Villatuertan jokatutako 38. San Veremundo Trofeoarekin (77 km). Lasterketa mugituan, El Proex-Iturriberro taldeko Eneko Martinez izan zen garai-leroa (2:00:26), bere taldekide Oier Lazkanori 23. segundo aterata. Burunda txirrindularitza klubeko Quesos Albeniz taldeko Asier Etxeberria 13.a sartu zen, 1:29ra. Bere taldekide Juan Riaño 17.a izan zen, Daniel Izquierdo 39.a, Alex Unzilla 44.a, Hodei Zia 45.a eta Xabier Maiza 53.a.



## Atletismoa

## Alberto Martinez 11.a X. Sahara Crossean

SAKANDAR ASKO LEHIATU ZIREN ORMAIZTEGIN JOKATUTAKO PROBAN

Sakandarrak X. Sahara Crossean

### Gizonak

1.	Aitor Etxebeste:	33:39
11.	Alberto Martinez:	35:45
12.	Sergio Garcia:	35:46
15.	Adur Senar:	36:05
20.	Iraitz Senar:	36:34
21.	Iban Gonzalez:	36:49
30.	Francisco Javier Gomez:	37:48
33.	Andoni Azanza:	38:04
36.	Gorka Garcia de Eulate:	38:45
70.	Mikel Astiz:	41:16
77.	Juan Carlos Gomez:	42:21
84.	Santi Agirre:	42:42
128.	Luis Migel Galindo:	45:40

### Emakumeak

59.	Lourdes Colomo	40:08
120.	Erkuden San Martin:	45:00
171.	Ixa San Martin:	54:10



Raul Audikana.

### Raul Audikana 14.a Hernanin

Larunbatean X. Sagar Lasterra herri lasterketa jokatu zen Hernanin (10 km). 412 korrikalarik bukatu zuten proba, Sergio Roman (28:51) eta Maitane Guerrero (33:01) buru zirela. Raul Audikana olaztiarra 14.a iritsi zen helmugara (31:54), Kaxi Estarriaga etxarriarra 110.a (37:19) eta Asier Estarriaga 124.a (37:46).

## Areto futbola

## Magna eta El Pozo, laugarren postua jokoan

Gaur, 20:30ean, Anaitasunaren jokatuko da partidak erabakigarria

Magna Gurpea Xotak garaipen oso baliotsua lortu zuen igandean Zaragozan, D-Link Zaragoza taldeari 1 eta 4 irabazi eta gero. Merezitako garaipena izan zen, talde berdea Zaragozako baina askoz ere gehiago izan baitzen. Carlitos (3) eta Araça izan ziren golegileak.

“Lehen 10 minututan beraiek gu baino hobeki aritu dira. Guk, ordea, aldea ateratu dugu eta horrek gauzak erraztu dizkigu. Bigarren zatian oso ongi defendatu dugu eta garaipena lortu dugu. Laugarren postuan gaude, El Pozorekin puntutara berdinduta, eta postu horri eusteko borrokan jarraituko dugu. Nolanahi ere, lehen 8 postuen artean mantentzea da helburua playoffetarako sailkatzeko” azaldu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

### Magna Gurpea vs El Pozo

Inter Movistar da lehen mailako liderra (61 puntu). Magna Gurpea Xotak laugarren postuari eusten



Taldea berdea bikain aritu zen Zaragozan.

dio (43 puntu), bosgarrena den El Pozo taldearekin puntutara berdinduta (43 puntu). Hain zuzen ere, gaur El Pozo taldea hartuko du Magna Gurpea Xotak Anaitasuna Pabilioian, 20:30ean. Laugarren postua dago jokoan eta garaipena lortzera aterako da Xota. Horretarako, zale guztien babesa eskatu dute talde berdetik.



## Herri kirolak

# Etxarrin bilduko dira herri kirolariak

**Etxarri Aranazko pilotalekuak hartuko du Nafarroako Herri Kirol Jokoen 3. Jardunaldia, igandean, 11:00etan**

Aurreko asteburuan Nafarroako Herri Kirol Jokoen bigarren jardunaldia jokatu zen Ororbian. Hiru kategoriatan jokatzeko txapelketak: kimuen mailan (11-12 urte), haurren mailan (13-14 urte) eta kadeteen mailan (15-16 urte).

Proba konbinatuetan 30 talde lehiatzen ari dira, eta 13 talde soka-tira txapelketan, talde sakandarrak tartean. Zehazki, Iñigo Aritzaren ikastolatik sortutako taldeak dabilta lehian—Iñigo Aritzaren, Aizkorri eta Urbasa—, eta Andra Mari ikastolatik sortutakoak—Andra Mari, Ondatz, Beriain, Andia, Leziza eta Utzubar—.

## Txapelketaren martxa

Iruritan eta Ororbian jokaturako jardunaldien ondoren, horrela daude gauzak. Kimuen mailako proba konbinatua Berriozar B da lehena (13:50), Andra Mari bigarrena (13:57), Urbasa 8.a (14:32), Andia bederatzigarrena (14:33), Beriain hamargarrena (14:42), Aizkorri hamaikagarrena (14:43) eta Ondatz hamahirugarrena (15:13). Haurren mailako proba konbinatua Basaburua da liderra (18:00), Andra Mari hirugarrena (19:15), Leziza laugarrena (21:17), Iñigo Aritzaren zazpigarrena (22:08) eta Utzubar zortzigarrena (23:41). Eta kadeteen mailako proba konbinatua Andra Mari da lehena (19:46), Iñigo Aritzaren laugarrena (22:56) eta Beriain seigarrena (23:51).

Sokataran talde sakandarrak dira nagusi. Haurren mailako A multzoan Iñigo Aritzaren da lehena (6



Proba konbinatuetan trontza lanetan aritzen dira haur mailakoak eta kadeteak. Ez, ordea, kimuen mailakoak.

puntu) eta Leziza bigarrena (3 puntu) eta B mailan Andra Mari da lehena (6 puntu) eta Utzubar hirugarrena (2 puntu). Kadeteen mailako sokatarako A multzoan Andra

Mari dago buruan (6 puntu), Iñigo Aritzaren aurretik (3 puntu) eta B multzoan Basaburua da lehena (8 puntu) eta Beriain hirugarrena (3,5 puntu).

**Igandean Etxarri Aranatzaren** Igandean Nafarroako Herri Kirol Jokoen 3. jardunaldia jokaturako da Etxarriko Euskalerriri pilotalekuan goizeko 11:00etatik aurrera.

## Mendi lasterketak



## Uxue Frailearen hitzaldia Altsasun

**Martxoaren 9an, asteazkenean, 19:00etan Iortia Kultur Gunean**

Martxoak 8 Emakumearen Nazioarteko Egunaren barruan antolatutako ekitaldien barruan, Uxue Fraile Azpeitia mendi korrikalariak Altsasu bisitatuko du asteazkenean. Fraile puntako mendi korrikalariada, besteak beste bigarrena izan zen Montblanceko Ultra Traillean, Japoniako Ut Monte Fuji irabazi zuen eta seigarrena sailkatu zen Ultra Trail World Tour Txapelketan. Korrikalaria eta emakume adetikarituko Fraile, eta orain arte lortutakoaz gain, bere egunerokotasunaren eta aurtengo asmoen berri emango du.

## Irristaketa

# 280 irristalari Olaztin

**Nafarroako Abiadura Irristaketa Txapelketako 4. Indoor proban parte hartu zuten**

Larunbaterako zegoen iragarria Nafarroako Abiadura Irristaketa Txapelketako 4. Indoor proba, Olaztin. Nafarroa guztiko 300 irristalari inguru espero ziren. Elurtuta esnatu zen Olazti, baina horrek ez zituen irristalariak kikildu eta gehienak, 280 inguru, hurbildu ziren Erburua kiroldegira. Goizeko 10:00etan Txikien Ligako probak abiatu ziren—miniak, aurrebenjaminak, benjaminak eta kimuak—, eta eguerditik aurrera helduen liga-koak—haurrak, jubenilak, juniorrak eta seniorrak—. Jakina, Sakana Irristaketa Taldeko irristalariak bertan lehiatu ziren.

Sakana Irristaketa Taldeko arduradun Juli Acebesek adierazi digunez “txapelketa bikain ateratu zen.



Sakana Triatlói Taldekoek talde argazkia atera zuten.

Irristalariak Erburuako pistan gustura aritu ziren eta kontentu gertatu ziren antolakuntzarekin”. Pres-

taketa lanetan, jakina, Sakana Irristaketa Taldeko kideak eta haien senitartekoak aritu ziren. Irristala-

ri guztiendako primerako hamaiketako prestatu zuten.

Sakana Irristaketa Taldekoak talde argazkia atera zuten proban. “Emozionatuta eta urduri zeuden etxean aritzeagatik, eta ongi aritu ziren. Katgoria guztietan izan genituen ordezkariak eta lehenengo postuetan ere sailkatu ziren gure irristalari batzuk” nabarmendu du Acebesek.



Lasterketa politik ikusi ziren.

## Txirrindularitza

## Iraitz Goñi bigarrena Tafallan

Larunbatean X. Zona Media Trofeo-a jokatu zen Tafallan, master mailako 100 kilometroko lasterketa. 17 txirrindularik osatu zuten proba, esprint estuan erabaki zena. GNG-Aelvasa taldeko Ibon Garmendia izan zen txapeliduna (1:58:26), Aralar klub sakandarreko Iraitz Goñi txirrindulari arbizuarraren aurretik.



## Pilota

**Ostiralean izan ziren bisitan, neska-mutikoen gozamenerako**

Ostiralean Joseba Ezkurdia pilotari arbizuarra eta ama lakuntzarrak duen Jon Ander Albisu pilotari gipuzkoarra Urdiaingo herri- eskolan agertu ziren, neska-mutikoen gozamenerako. Urdiaingo ikasleek egindako galderak erantzun ondoren, urdiaindarre euren dako propio prestatutako bertsoa entzun eta ondoren frontoira joan ziren guztiak. Bertan, eskolak antolatutako pilota txapelketako finala jokatu zuten. Bi irakasle finalistak bi ikasle finalistek kontra aritu ziren, eta nahiz eta irakasleek irabazi, ikasleek oso ongi jokatu zuten. Guztiek diploma jaso zuten.

## Ezkurdia eta Albisu Urdiaingo eskolan



Ezkurdiak eta Albisuk talde argazkia atera zuten Urdiaingo herri- eskolako ikasle eta irakasleekin. UTZITAKOIA





**Xabi Aldaz (Kaotiko taldeko bateria-jolea)**  
Martxoak 4, 12:00etan, Guaixen ON-LINE ELKARRIZKETA  
Bidali zure galderak [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) bidez

## Einnekin **bardoan** asteburu betea

**Gaur, 22:00etan, Etxarri Aranazko gaztetxean ariko dira Larungo antenak-ekin. Itzuliko saioa bihar, 21:00etan jokatuko dute Berako Katakua ostatuan. Talde irabazlea finalerako sailkatuko da**

**B**ardoak, Nafarroako taldekako bertsoekimenak bigarren faseko azken asteburu du. Talde etxarriarrak gaurko eta biharko saioetan herrian bertan izanen den finalerako txartela jokoan du. Einnekin-eko Eneko Lazkoz, Saats Karasatorre, Oier Lakuntza, Joseba Beltza eta Unai Artieda bertsolariak Larungo

Antenak taldeko Julen Zelaieta, Patxi Castillo, Jokin Pinatxo eta Aitor Elexpurrekin neurtuko dira gaur-bihar. Etxarriko gaztetxeiko aurkezlea Maider Ansa izanen da.

Bardoak ekimeneko bigarren fasean saioen egitura mantendu bada ere, bertsolariak ariketa berriak egin beharko dituzte, talde lana handituz. Hona egin beharreko lana: hasierako agurra, taldeka (puntuagarria, zortziko handian binaka gaia emanda hiruna bertso, zortziko txikian binaka ofi-



zioka hiruna bertso, *Iparragirre* doinu binaka ofizioka hiruna bertso, Egoera emanda *Juana Bixenta* doinu binaka taldekideen artean hiruta bertso osatu, zortzi puntuko hamaseiko berdinean gaia emanda ofizioka, taldeko bi kideen artean bi bertso osatu, egoera emanda binaka *Segidilla* doi-

nua launa txanda osatu arte, koplak (launa koplak osatu arte), zortziko txikian hiru punturi erantzun, gaia emanda bi bertso osatu, puntukako saioa taldekideen artean ohikoa ez den doinu (sei bertso osatu arte) eta akaberako agurra, banaka (ez puntuagarria).

## Argazki rallya Irurtzunen

**Igandean, 10:00etan, Erga Larreak elkartean dago hitzordua**

XXIII. Emakumeari Buruzko Jardunaldien barruan, igande goizko argazki rallya iragarria dago. Interesa dutenak Erga Larreak elkartean 10:00etan egon beharko dute. Han azalduko die rallyko gaia zein den eta zein baldintza bete beharko diren argazkiak aurkezteko. Parte-hartzaileen artean ere rallyaren iraupena zehaztuko dute, baina antolakuntzatik ziurrenik 14:00etaraino izanen dela aurre-ratu dute. Rallyko argazki irabazleek egileek sariak izanen dituzte.

## Hausnarketa flamenko erritmoan

**Larunbatean, 20:00etan, Olatzagutiako kultur etxean**

**I**nmaculada Perez Quiros, Inma la Bruja, aktorea eta flamenkoa batetik. Eta Pedro Barragan, Misisipi, gitarra-jolea, bestetik. Horiak dira Olatzagutiako kultur etxean *Dando el cante* ikuskizuna eskainiko dutenak. Ibilbide luzea duen ikuskizun horren bigarren bertsioa da ikusgai izanen dena. Antzezlea? Kantaora? Umoregilea? Antzezlanak? Flamenko errezitaldia? Kabareta? Bakarrizketa? Musikala? Horiak guztiak eta gehiago ikuskizun bakar, ezberdin eta benetako batean jasoko.

Inprobisaziotik sortutako ikuskizuna da. "Ikuslea gehien ukitzen zuten uneak jaso eta, baita ikus-

leei galdetuz ere osatuta. Bere kabuz sortu den ikuskizuna da. Egi askorekin lan egiten dugu, horregatik askotariko publikora iristengara". Denondako ezagunak diren egoerak surrealismoz eta ironiaz ematen dituzte. Sortzaileek ikuskizunaren bidez ikusleak hausnarketa gozoa egitera gonbidatu nahi dute.

Ikuskizunak flamenkoaren

erritmoa du, haren ahozko tradizioz edaten du eta antzerkiaren adierazpidearekin aberasten da. Inma la Brujarekin batera Barraganen gitarra ikuskizuneko protagonista bat da. Barraganen beraren eta herrikoiak diren doinuak emanez. Argi jokoen bidez antzerki giroa lortzen da, publikoarekin komunikatzeko egokiak.



## Helena Tabernak mustutzeko data du

**H**elena Tabernaren *Acantilado* filma zinemetara garagarzaroaren 3an iritsiko da, Alfa Pictures banaketa etxearekin. Zinema zuzendari altsasuarrak Lucia Etxeberriaren *El contenido del silencio* liburua moldaketa eraman du iruditara. Gidoia Tabernak berak eta Andres Martorellek eta Nacho Lopezek idatzi dute. 2015ean filmatu zuten, Gipuzkoan, Kanaria Handian eta Nafarroan.

Kanarietan sekta bateko kideek talde suizidioa egiten dutenean, Gabriele sektako kide zen eta urteetan ikusi ez duen arrebarren bilaketari ekiten dio. Arrebarren lagun onena zen Helenarekin ariko da horretan. Jon Kortajarena, Goya Toledo, Juana Acosta eta Daniel Grao aktoreak daude.



## Fran eta Zuriñe, zuzenean

**Gaur, 22:30ean Olatziko Barandi tabernan**

**H**esian taldeko Fran (gitarra eta ahotsa) eta Zuriñe (ahotsa) zuzenean ariko dira. Bikoteak Hesianen eta beste sortzaile batzuen kantak eskainiko ditu, beste formatu batean, akustikoan, biluziagor. Bestalde, aurten Hesian taldeak 10 urte beteko ditu, eta proiektu berriak lanean daude.

## bazterretik

**Juankar Lopez-Mugartza**

### Zazpiak bat

Mingaina ez dut loturik (arima librea dabilkit lainoan barna ixilik): zaplastekoa nondik etorriko den jakin gabe, masail baten ondoren bestea ez iezaiozu erakutsi inoiz ere inori. Emailea nor den alde aurretik ezagutzea da komeni, eta bereziki, ea baten batek agindu ote dion oparia ematea zuri, sai putre beltz koldarrek ez dutelako mantxarrik, besteei ematen die lan zikin horren truke, beren sari.

Ez eman guztia dena eskatzen dizunedozeini. Bihotz onekoa zara, halaxe egin duzu orain arte beti.

Agian, eskua jango dizu elikatu duzunak guztiz goseti. Esker txarrekoa da, zinez, zutaz aprobetxatu nahi duen hori. Lagunak aukeratu, nor zaren ikasi.

Oinak dauzkate anpulez beteta eta odolez beterik, halere ez nauzue ikusiko makurtuta edo belaunikaturik. Dirua eskatzen nabil ene bazterretik, ez nago konpainiarik gabe nire txakur txikirekin. Okerrago dabilta preso gaixoak urrundik herritik, ebasle zuriak lasai dabilta, ordea, libre kaletik. Ezer gabe nago orain eta ez daukat etxerik, kaleratze txar batek utzi nau hotzak hartuta, eztulka, biluzik. Baina ez

nago bakarrik, nor naizen ni bada- kit.

Herri batez garelasean dizute maiz. Gure bidaide askok diskurtsoasintsirik, beren burua ukatzen dute, eta nortzuk diren ez jakinki. Ez dakite noladuten izena, ez zein den beren sorteri, zenbat diren, nortzuk diren, nor diren haien anai-arrebak, haien familia.

Begiak lehor ditut negar egin ezinik, kornea erre baitzidaten zigarro baten punta batekin. Lanbroa ez da lanbroa, sutautsaren kea baikik. Landa zabalak daude bizien aurkako mina hiltzailek josirik. Errefuxiatuak dabilta zeruaren mugak

ezin gairiditurik. Ez dute pasaportetik, ez etorkizun garbirik, baina nortasun sendoa dute, nortzuk diren jakinik.

Haur bat hilda dago hondartzaren ertzean, txori zoroak bezala doaz balak hegaka airetik. Suizida batek bere gorpu(tz) a detonatu du Parisen erditik.

Artzain gazte batek artalde osoa emango luke pakea izan zedin; nekazari zaharrak, berriz, idi pare, munduan justizia egon eta fraternitatearen goldeak ildo zuzenak ireki zitzaiz. Jende konprometitua da eta munduko urte guztiak ere ezin izanen luke haien duintasuna ero-

si. Eta ibaiak idortuta ere, ez diete inori ere buru makur eskatuko agorraldia buka dadin, inork ezin izango baitu, ezta urak berak ere, haien handitasuna ito; hor ez dago ezbarrik.

Baina haiek bezalakoa izateko ikasi nor zaren. Herri honen izena, due-la gutxi arte, deitzen zen Euskadi. Orain askok, gazteek ere, esaten diote honela soilik hiru probintziari. Iparaldea ez ote da Euskadi jadanik? Hilko da Euskadi? Iraunen du zutik? Batek ere ez daki, baina nor zaren badakit. Zu euskalduna zara, gorai-pa Euskal Herri, gora eta gora beti, eta bizi bedi !!!



# Bizitzak ehuntzen

Gaur, ostiralean, 20:00etan eta 22:30ean; larunbatean, 20:00etan eta igandean, 19:00etan, Irurtzango kultur etxean antzerki tailerraren emanaldiak



Irurtzango antzerki tailerrak gaur mustuko duen obra, *El club de las lanas*, artile-denda txiki batean kokatzen da. Han pasako dira pasa beharreko guztiak. Eta asko dira. Mercek, dendako jabeak, era guztietako emakumeak hartzen ditu. Haien arteko harremanak dira antzezlanaren haria. Emakume horiek euren esperientziak eta bizitzak partekatzen dituzte dendan. Haien hizketaldiek hainbat gai sakon azalazteko ematen dute: seme-ala-

bak, maitasuna, banaketak, adiskidetasuna...

Etxe-giroko artile-denda da obrako eszenatoki bakarra. Personaiek hara egiten dituzten sartu-irteerak dira akzio bakarra. Sortzen diren gatazkak azpimarratzen dituzte Maurice Ravelen *Boleroa* eta Kansas taldearen *Dust*

## Zein da zein

**Txus Abad.** Merce, mertzeriaren jabea.

**Peio Alzueta.** Martin, gizon adindua eta mertzeria ondoko tabernako jabea. Erlazioa dute.

**M<sup>a</sup> Eugenia Barroso.** Merceren laguna. Beti dendan dago. Kudeaketako profesional ona, kaleratu egin dute eta langabezia dago.

**Maria Esparza.** Amarekin arazoa du, eta gaizki darama. Puntua ongi egiten du. Denbora askoren ondoren, intseminazio artifizial bidez, haurdun gelditu da.

**Txeli Garcia.** Merceren ama, amona. Ehunenezagutza handia du. Bizieskarmentu handikoa da.

**Jose Ramon Irure.** Romano. Mercerekin ezkondu zen, alaba izan zuten. Ihes egin zuen eta urteen ondoren bueltatu da.

**Gemma Matxain.** Itzal handiko abokatua, bere lan inguruaz nekatuta puntuari emana dago.

**Tere Otxoa.** Merceren lagun handia, hura laguntzeko prest dago. Adindua. Argia. Martinekin erlazioa du.

**Meghan Sapp.** Merceren institutuko laguna. 25 urte elkarikus gabe eman ondoren, bueltan da.

**Zuriñe Serrano.** Merceren alaba. Argia. Puntua eta gozogintza gogoko ditu.

*in the wind* kantua.

Angel Sagues izan da, atzera ere, antzerki tailerreko zuzendaria. Kate Jacobsen *El club de los viernes* liburuan oinarritu da moldaketa, antzezlanaren sortzeko. Joan den urtean 19 aktore-erendako lana egokitu bazuen, aurten hamarrendako izan da. Horrek aktore-

ekin "lan pertsonalagoa" egiteko aukera eman dio. Saguesek azaldu digunez, "testua sakonagoa da eta antzezleek eurengandik gehiago eman behar dute". Gaur mustuko den antzezlanaren "apustu arriskatua" dela aitortu digu. Baita publikoaren erantzunaren zain dagoela ere. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

# Ikastetxe frankista bateko pasadizoak

Gaur, 20:00etan, Altsasuko Iortia Kultur Gunean. Josefina Arregi Klinikako Lagunak elkartearendako izanen da sarreraren zati bat

Tela Marinera antzerki taldeak *Juegos prohibidos* antzezlanaren eskainiko du Altsasun gaur. Alberto Mirallesen *Juegos prohibidos* eskainiko

dute, 1952an girotutako komedia. Frankismo garaian ikastetxeak sexuka banatuta zeuden, baina nesken ikastetxe bat eta mutikoen beste bat Gerrate Zibilean eraikitako tunel batekin lotuta zeuden. Klaseen ondoren, tunel horri esker, elkartzeko aukera baliatuko dute neskek eta mutilek. Protagonistak nes-

ka-mutikoak, apaiza, moja alemaniar bat, falangista bat eta emakumeen sekzioko irakasle bat dira. *El florido pensil* lanaren antzera, garaiko hezkuntza nola zegoen azalduko du. Castro Urdialesko taldea 2005ean sortu zen, hainbat antzerki talderen banaketan ondoren.

Altsasuko Tarima Beltza amateur antzerki taldeak beste elkartruke programa bat abiarazi du aurten. Haien beste erkidego batzuetako antzerki taldeekin trukeak egiten dituzte. Programa horren emaitza da gaur eta heldu den larunbatean (Abadiñoko Banarte taldearen *Guernica 1913* obra) Iortia Kultur Gunean izanen diren antzezlanak.



## Klinika laguntzeko

Gaurko emanaldiko sarreraren %10 Josefina Arregi Klinikako Lagunak elkartearendako da.



# Gerraostean, bi ahizpa

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia Kultur Gunean

1936ko estatu kolpearen ondoren sortutako bi Espainien adiskidetzaren arazoak islatzen dituen antzezlanaren da *Nosotras*. Joan den mendeko 40ko hamarkadan kokatua dago antzezlanaren eta bi ahizpa dira protagonistak: Isabel (Leire Ruiz) frankista eta Josefina irakasle errepublikarra (Maiken Beitia). "Bizi, gizarte, harreman eta familia baldintzengatik ahizpa bakoitza alde banatan dago".

"Minagatik eta ezinikusitaz" banatuak dauden bi ahizpak hiru egoeratan bat egiten dute eszenatokian. Aurrenekoan makiek Isabel bahituta dute. Bigarrenean, Josefina preso dago. Ego-

era horietan ahizpek ezin dute adiskidetzarik garatu. Azken hitzordua Mexikon da, 30 urte

geroago. Bi ahizpa horiek gerraostean eta adiskidetzaren pertsonifikazioa eta alde gizatiarra

dira. "Ezin dute elkar ulertu. Elkar besarkatu nahiko lukete, baina ezin diote bereari utzi, besteari arrazoia ematea litzatekeelako".

Oholtzan ez dago dekoraziorik, altzari batzuek girotzen dute obra, "memoriaren ganbara moduko bat sortuz". Aktoreak beraiek mugituko dituzte altzari horiek antzezlanaren zehar. Emanaldian zehar, une jakinetan, Francesco Casalik pianoa zuzenean jotzen du. Musika pasarte horiekin bi ahizpak eta haien aitaren karakterizazioa egiten laguntzen du Casalik.

Alberto Iglesiasen obra Migel Martinezek zuzendu du. Bi aktoreen konpainia da El Bucle eta *Nosotras* euren lehen ekoizpena da. Londongo antzerki dokumentalaren oinarria da antzezlanaren



# Non erabili

## PATXI GALARZA

### IRURTZUN

%5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €-rengatik txistorra opari.

## JM AGIRRE HARATEGIA

### LAKUNTZA

50 €-ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

## KAXETA

### ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua irakurketako liburuetan.

## KATE INFORMATIKA

### IRURTZUN

%5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

## CITROËN SAN MIGUEL

### ALTSASU

Total olioetan %30eko deskontua. Pneumatikoen aldaketan %30 deskontua.

## IRUBIDE JATETXEA

### ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50 €.

## SAKANA OPTIKA

### ALTSASU

%15eko deskontua graduatutako betaurreko osoetan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

## HOSTOAK

### LOREGINTZA

### LAKUNTZA

20 €tik gorako erosketetan %8ko deskontua, garaiko landareetan izan ezik.

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)-en zerranda osoa ikusgai



**BAZKIDETZA 50€**  
**948 564 275**



## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 85%	euria: 98%	euria: 98%	euria: 99%	euria: 97%	euria: 85%	euria: 96%
Min: 4 Max: 11	Min: 2 Max: 5	Min: 0 Max: 3	Min: 0 Max: 4	Min: -1 Max: 4	Min: 0 Max: 5	Min: 3 Max: 7

## : temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	13.5	0.5	165
Etxarri A.	12.9	-0.3	147.2
Altsasu	11.5	0.5	179.8
Aralar	3.8	-3	37.5
Urbasa	-	-	-

## : ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
9	15	23	31

**EGOKI**  
VENTANAS PVC LEIHOAK  
www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

**Acrylcolor**  
SISTEMA BERRIA  
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

## Bazkide sarituak

- 1.- **Mikel Jimenez** (Ihabar)
- 2.- **Amaia Serrano** (Altsasu)
- 3.- **Sandra Santano** (Altsasu)
- 4.- **Kontxi Etxeberria** (Bakaiku)

# >> 11 galdera

**Juan Antonio Risco**  
Motorzalea

Testua: Larraitz Amadoz Lazkano



## Erakunde eta elkarteentzat ARGITARATZE-ZERBITZU OSOA:

erredakzioa, maketazioa, itzulpenak eta argazkiak egitea, inprenta eta garraioa

**Guaixe KOMUNIKAZIOA**

948 564 275 argi@guaixe.eus

**1. Noiz hasi zinen motoekin?**  
Oso gaztea nintzenetik gustatu izan zaizkit motoak. Lanean hasi nintzanean, Londresera oporretarako joateko gordeta nuen diruarekin nire lehenengo motoa erosi nuen, trialeko Ossa bat. 23 urte arte ibilnintzen berarekin. Orduan futbolearen aritzen nintzen, eta kirolean irabazitako diruarekin errepidean ibiltzeko moto bat erosi nuen.

**2. Txapelketa parte hartzen al zenuen?**  
Ez, inoiz ez. Zaletasunagatik egin dut beti. Haizeak aurpegian ematen dizunean, deskonektatzeko ematen dizun aukera hori zoragarria iruditzen zitzaidan hasieran eta gaur egun ere.

**3. Motorzaleen topaguneetan parte hartzen duzu?**  
Bai, gustatzen zait. Bertara joan, asteburu bat primeran pasatzen duzu, kanpin denda eta guzti, eta ibilbide desberdinak ezagutzeko aukera daukazu.

**4. Bidaia asko egin al dituzu motorrean?**  
Bidaia luze dezente egin ditut bizitzan, bai. Batzuetan bakarrik eta beste batzuetan konpainiarekin, garaiaren arabera. Nire emaztearekin Done Jakue bidea egin genuen behin, joatea ibilbide frantsetik egin genuen eta itzultzeko, berriz, kostaldetik. Bost egunetan egin genuen bidaia hura eta zoragarria izan zen. Horretaz gain, Zilarrezko Ibilbidea eta herrizurriena egin genuen ondoren. Espainia osoa zeharkatu dugu, egia esan.

**5. Europa iparraldeko lurmuturrera joan aurretik bidaia berezia egin zenuen, ezta?**  
Iberiar Penintsula osoari buelta eman nion. Galiariaraino joan nintzen eta hortik Portugaleko kostalde osoa gurutzatu nuen, Andaluziako itsasertz guztia, eta hortik iparralderantz Cadaquesera iritsi arte. Catalunya atzean utzi eta handik Nafarroa aldera. Hau dena autobideak saihestuz. Nahia-godituterrepide konbentzionalak.

**6. Zer eramaten da motoan bidaiatzeko?**  
Motoan bidaiatzeko arropa gutxi behar da. Bi edo hiru praka, kamiseta batzuk, barruko arropa... ahalik eta gutxien. Beti topatu daiteke arropa garbitzeko lekuren bat.

**7. Zer iritzi duzu motoek duten arriskuaren inguruan?**  
Bildurrez ateratzen baldin bazara, hobe duzu ez ateratzea. Motoetan dauden istripuak gehiago nabarmentzen dira. Garrantzitsuena ardura eta zure buruan konfidantza izatea da. Bi gurpilen gainean zoaz, oso kontuan hartu beharrekoa. Mila begirekin ibili behar da, gidari askok ez gaituztelako errespetatzen.

**8. Zer ematen dizu motoan bidaiatzeko?**  
Arazoak alde batera uzten laguntzen dizu, denbora asko daukazu pentsatzeko; niretako ikaragarria da. Zure barne hausnarketak egiteko eta norberaren baitako pentsamenduak aurkitzeko zoragarria da bakarrik bidaiatzea.

**9. Noiz erabaki zenuen Europa Iparraldeko Lurmuturrera joatea, North Cap ospetsua egitea?**  
North Cap ibilbidea munduan oso ezaguna da motorzaleen artean. Laponiako azken lurmuturra da, eta motorzale bakoitzak hara iristeko egin behar duen ibilbidea erabakitzen du. Bakarrik joateak beldur pixka bat ematen zidan, hizkuntzaren kontuagatik batez ere, baina ez nuen inor aurkitu eta bakarrik joatea erabaki nuen.

**10. Zein ibilbide egin zenuen?**  
2015eko maiatzean ibilbidea planifikatzen hasi nintzen. Nondik joan, non gelditu, datu horiek guztiak mapan markatzen joan nintzen. Azkenean, motxila egin eta iparralderako bidea hartu nuen. Uztaileko azken astean eta abuztuko lehen bi asteetan egin nuen joan-etorria. 11.130 km egin nituen guztira, eta 18 egunetan egin nuen joan itzulia. Frantzia osoa gurutzatu nuen lehenik, gero Alemaniara pasan nintzen, ondoren, Danimarka aldera joan nintzen, Danimarkako zubia zeharkatuz Suediara iritsi nintzen, Suediako kostalde osoa gurutzatu eta gero Finlandiara ailegatu nintzen. Iparraldera jo nuen Finlandian, eta Ibilbidearen azkeneko eremuan Norvegiara sartu nintzen North Cap-era iritsi nintzen arte. Itzulia nahiko antzekoa egin nuen.

**11. Inoiz galdu al zinen bidean?**  
Behin, Frantzian. Konpontze lanean zeuden errepide batean eta bide okerra hartu nuen. 200 km gehiago egin nituen hartu beharreko bidea ez hartzeagatik.